

2015eko Otsaila

K

Oñatiko Urtaro 247. zikloa

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO XIX. INGURUMEN JARDUNALDIAK

Desagertzeko arriskuan dagoen bisoi europarra eta gizakion historia ikuspegi energetikotik aztergai. **Otsailak 18 - Martxoak 8**



italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

ETXEBIZITZETAN AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
 - Kurtzekuan
 - Kasablankan
- 3 logela + garaje itxia

PREZIO BEREZIAK!!

* zehaz. informazioa

Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

➔ Liburutegiko **BERRIAK**

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



LIBURUA
"El hombre y la madera"



LIBURUA
"Anatomía de los estiramientos"



SAIAKERA
"¿Por qué manda Occidente por ahora?"



LIBURUA
"Remedios naturales para síntomas habituales"



LIBURUA
"Delicias veganas"



LIBURUA
"Eutsiko diogu?"



LIBURUA
"Síntesis espeleológica de Urbasa-Entzia"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 -13:00 / 16:30-20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 -19:30



TXALOKA Ludoteka



ATE IREKIAK egunero.

Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16.45-19.45



GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera datu hauek bidali beharko dira: igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Espainia Marokoren konplize Sahararren zapalkuntzan

Ekiñe Zurutuza eta Xabier Etxeberria, udan Saharar lurralde okupatuetatik kanporatutako brigadistak

2010ean Gdeim Izikeko gazte sahararrek protesta akanpada bat egin zuten. Marokoko gobernuak modu basatian zapaldu zituen gazteen aldarrikapenak. Gertakari hauek udaberri arabiarren hasiera izan ziren.

Gertakarien harira, saharar gazteen aurkako errepresioak hainbat atxiloketa eta epaiketa ekarri zituen. Epaitutako gazte horietako bat Hasana Aalia izan zen. Zigorra txikia izanik ez zuten espetxeratu.

2011n ikasketak zirela eta, Euskal Herrira etorri zen. Bere egonaldia amaitzeko bi hilabete falta zirela tribunal militar batek Gdeim Izikeko gertakariengatik epaitu behar zutela jakin zuen. Bizi osoko kartzela zigorrera kondenatu zuten.

Egoera ikusirik Euskal Herrian gelditu eta estatu espainolari asilo politikoa eskatzea erabaki zuen. Orain, asilo politikoa ukatu diote eta hamabost eguneko epean Marokoko gobernuari entregatua izateko arriskuan dago.

Guk egoera hau salatu nahi dugu, Marokoko gobernuak espainiar estatuaren konplizitatearekin Saharar herriaren aurka daraman zapalkuntza politika guztia bezala.

Horrez gain, gertaerei adi egon eta egon daitezkeen deialdi eta mobilizazioekin bat egitera animatzen zaituztegu. Gaur egun, sinadura bilketa bat dago martxan interneten: <https://secure.avaaz.org/es/petition>

OHAR ETA DEIALDIAK

TRUKE AZOKA Antixena gaztetxean

Antixeneko gazteek truke azoka bat antolatzea erabaki dute. Herritarrek eramandako arropak, liburuak diskak... trukatu ahal izango dira bertan, otsailaren 27tik aurrera, gaztetxea zabalik dagoen edozein unetan.

Material bilketa otsailaren 23-27 artean egingo da, (17:00-19:00). Eraman gaztetxera eta utzi bertan beste batzuek berrerabili ditzaketen edonolako gauzak.

Presoen aldeko zozketan saritua

Herriko presoen alde Gabonetan antolatutako zozketan 1431 zenbakia atera zen saritua eta 2005 ordezk bezala. Hilebeteko epea igaro ostean lehenengo zenbakiaren jabea agertu ez denez, Pedro Mari Igartuak aurkeztu du ordezk zenbakia, eta berak jaso du saria, Gabon saski zoragarria, ondoko argazkian ikusten den moduan.



Arrasaten eta Aretxabaletan bizi diren oñatiarren bazkaria martxoaren 7an

laz bezala, aurten ere mahaiaren bueltan elkartuko dira Arrasaten eta



Aretxabaletan bizi diren oñatiarrek. Martxoaren 7rako egin dute plana, Arrasaten: 13:30ean lunch-a izango dute Kajoi tabernan, 14:00etan talde argazkia aterako dute herriko plazan eta 14:30ean Batzokira joango dira bazkaltzera. Interesatuak Ederra tabernan eman beharko dute izena, martxoaren 1a baino lehen. Prezioa: 40 euro.



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duten **Utxe-Andi** bikote guztien artean, Kanariar Uhartetara joateko bi bidai * zozketatuko ditugu.

* penitzi osorik

Informatu zaitez!!

www.etxeandl.com



Tokiko Gobernuari Galdezka



HONDAKINEN INFORMAZIO BULEGOA



lazko udazkenean hondakinen inguruko informazio Bulegoa Olakuan zerbitzua ematen hasi zen hamabostean behin, baina orain utzi egin dio. Zergatik?



Olakuako dorreko behealdean ez dira lankideak egoteko baldintza minimoak betetzen neguan (hotz handia egiten du eta zaila da gunea berotzen). Beste alternatiba batzuk aztertu ditugu auzoan baina momentuz ez dugu aukera egokirik ikusi. Udaberrian, eta eguraldia hotzaren aldetik hobetzen duenean, berriro Olakuan zerbitzua eskaintzen hastea da asmoa. Barkatu eragozpenak.

BAKEA ETA BIZIKIDETZA



Bakea eta elkarbizitzan sakontzeko helburuarekin, herri batzuetan hasi dira alde guztietako biktimen omenezko ekitaldi edo ekimenak antolatzen. Oñatin (edo eskualde mailan) ba al dago ezer egiteko asmorik ildo horretan?



Normalizazio politikoa helburu, bizikidetza lantzea ezinbestekoa da. Herri honek drama izugarria bizi izan du eta hein handi batean eta batzuentzat bizitzen jarraitzen du. Hildako asko ditu bizkarrean, baita zauritu,

torturatu eta mehatxatu pila ere. Gaur gaurkoz beraien eskubideak errespetatzen ez zaizkien 3 herriko seme preso daude eta beste herrikide bat, berriro ere kartzelaratze arriskuan egon daiteke jadanik bete duen zigorraren zati bat bigarren aldiz betearazi nahi diotelako.

Etorkizunerako oinarri sendoak jartzeko, aurrez aurre begiratu behar diogu gertatuari eta ezberdinen arteko konfiantza sortzen joan. Pertsonen arteko konfiantza sortzen hasita aukera emango digu guztiek adostutako ekimenen bat antolatzea, baina gaur gaurkoz harreman eta konfiantza sortze fase horretan gaude, eskatzen duen diskrezioarekin. Hori da bizikidetza lantzeko modua eta hori ezin du Eusko Jaurlaritzak egin, hori herriak bere herrian egin behar du. Espero dezagun abiatutako bidea ondo joan eta etorkizunean ekimen bateratuetarako tarterik izatea.

SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA



Sancti Spiritus unibertsitateko sarrera nagusiko fatxadan orban beltzak daude, gero eta handiagoak, gure eraikin enblematikoena zakartzen dutenak. Neurriren bat hartzea aztertu al duzue?



Eraikina Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta berari dagokio kontserbazioa. Orban beltzak azaldu zirenean jakinarazi zitzairen eta errehabilitazio teknikariak baieztatu digu ondo batzuk direla. Onddo horiek aztertzen ari dira momentu hauetan ikusteko zein izan daitekeen jatorria eta eman beharreko tratamendu egokia.



SAGARDOTEGIKO MENUA
SORALUZE OSTATUAN

URTARRILA ETA OTSAILAN
 ENERO Y FEBRERO
 OSTIRAL ETA LARUNBAT GAU GUZTIAN
 LAS NOCHES DE VIERNES Y SABADO

25 €
 (edaria eta kafea barne)
 (bebida y café incluidos)

KUPELEKO SAGARDOAREKINI!!

EGIN EZAZU ZURE ERRESERBA

943 71 61 79 / INFO@soraluzeostatua.es

...eta martxoan menu Galiziarro, Ribeiro ardoarekin

oposiziotik

Lourdes Idoiaga - EAJ

**ENPRESEN FUNTZIO
SOZIALA**

Krisiaren amaiera iragartzen duten datu eta informazio markroekonomiko mordoak jasotzen dugu: BPG %2ra igoko dela, horrek enplegua sustatuko duela... datu horiek, gainera, Espainiar Gobernuak ematen dituenean triunfalistak izan ohi dira. Egoera honek aldiz, triunfalismoa baino, lan eta zuhertasun gehiago eskatzen ditu.

Datuek bere horretan ez dute inoiz enplegurik sortzen, enpresak izaten dira enpleguaren sortzaileak, Gipuzkoan enpleguaren %85a enpresen eskutik dator. Horregatik, diskurtsoak albo batera utzita, erakundeetatik gogor egin behar da lan, ez soilik enpresen diagnosa ezagutzeko, baizik eta ziklo ekonomiko berriaren baitan, enpresa jarduera biziberrituko eta bultzatuko duten politikak martxan jartzeko; betiere horiek aurrera eramateko diru partidak eskainita. Eta horrek dudarik gabe, ezinbestean elkarlan publiko-privatua eskatzen du sektore bakoitzari egokitutako planak aurrera eramateko.

[Datuek bere horretan ez dute inoiz enplegurik sortzen; enpresak izaten dira enpleguaren sortzaileak. Gipuzkoan enpleguen %85 enpresen eskutik dator](#)

Gure lurraldean, industria sektorea izan da eta da gure ekonomiaren motore, horregatik, beharrezkoa da erakunde eremu guztietatik lehiakortasuna, berrikuntza eta nazioarteratzea hobetzeko planak sustatu eta babestea, horrela lortuko baita krisiari aurre egin dieten enpresak berritzea eta teknologia zentro eta unibertsitateekin elkarlanean jarduera berriak bilatzea.

Baina halaber, beharrezkoa izango da **enpresen giza baliabideen kudeaketaren alorrean berrikuntza sakona ematea**, pertsonen lidergorako gaitasunen berrikuntza ikuspegitik, langileen parte hartze zuzen eta aktiboa sustatuko duten formulak bultzatzeko, horrek eragina izango baitu langileen erabakimen eta enpresen emaitzen birbanaketan.

Azken finean, **enpresen funtzio sozialean sinesten dugu eta gizon-emakume ekintzaileen prestigioa aldarrikatzen dugu** beren giza kapitala gizarte politika onenera bideratzen baitute, enplegu sorrerara hain zuzen.

gobernutik

Nerea Zubia -EH Bildu

**OÑATIKO CURRICULUMAREN
LEHEN URRATSAK**

Oñati: *Jaurerria lehenengo, Konterrixa geruago, eta 1845ian Gipuzkuako herrixa, probintziarekin bat egin eta gero.*

Monumentala: Sancti Spiritus unibersidadia, Bidaurretako monasterixua ... Naturguniak: Aizkorriko mendikatia, Itturigorri ...

Leku-izenak: Lamiategi, Troska ...

Txokolatia, kirola, industria, auzuak, jaixak, dantzia ...

Oñatiarrak txantxikuak.

Berbetia: amandria, iratargixa, atxintxika ...

Kondairak, esamoldiak, ogibidiak, pertsonaia ezagunak eta ez hain ezagunak ...Eta beste zertzuk ez!

Ezaguketan al dogu geure herrixa? Ba al dakigu nundik gatozen eta nor garien? Gaur egun, teknologia baxien bittartez, eskuragarri dakogu mundu osoko informaziñua, klik gutxi batzuk egiñaz. Pantailan leiho birtualak zabalduaz gai gara mundua ikusteko. Baiña gure herrixaren eta gure izatiaren ezagutzia galtzen ez ete gabiltzen susmua dakogu. Agozko transmisio natural hori ahuldu da eta bestelako bittartekuak sortu bihar dittugu eten hori emun ezta.

[Oñatiko Herri Curriculum gure herriko ondaria belaunaldi barrixai ailegau eragitteko garantixia izango da.](#)

Curriculum, ikasliak ezagutu eta barneratu biharreko balore, gaittasun eta jakintzak zihazketan dittuen erreferentzia komuna da. Oñatiko Herri Curriculum, beraz, **Oñatiko ondaria belaunaldi barrixai ailegau eragitteko garantixia izango da.** Hau da, belaunaldi barrixai herrixaren gaiñan zer ezagutu biharko leukiein zihaztu eta ezagutu hori modu pedagogikuan, ikastetxien bittartez, material egogixak izanda, ondorenguari ailegau eragittia helburu dakon prozesua da. Azken baten, gure nortasunaren eta kulturaren biziraupenaz dihardugu.

Herriko ikastetxien alkargune dan Hezkuntza Mahaittik abixau dan egittasmo honetan, gaiñituen parte hartzeia be ezinbestekua izango da: herriko eragilliena, geure nagusixena, historialarixena, auzotarrena... Gaur egun gariena ulertu eta gure gaztiak etorkizuna eraikitteko, izan giñena ezaguketia biharrezkua da-eta. Erronka polita dakogu, beraz, begi bistan; bixar izango gariena, gaur geure esku be badaguelako.

Errotia martxan da "Atxian, putxian, perolin pan nere semia erroten errotatxuan klin-klan".

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada


KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**

Etxagok Ama Begira (Gazteleku) **INPRIMATEGIA** Gertu

TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:** 

publi@oinati.net



ESPEZIE INBADITZAILEAK

Gizakiak, bere existentziaren hasieratik, bere ingurua aldatu izan du. Aspektu horretan, beste espezie bizidunekin alderatuta, ez da oso ezberdina. Espezie biologiko guztiek aldatzen dute, modu batera edo bestera, beraien ingurua, erlazio estuan bizi eta aldatzen baitira beste espeziekin eta inguru fisikoarekin bat eginda. Gizakia, baina, beste espezieak baino haratago joan da ingurunearekin duen erlazioan. Gizakia bizitzaren historiaren seigarren desagerpen masiboa sortzen ari da (egunero dozenaka espezie desagertzen dira), dinosauroen desagerpenarekin alderatu daitekeena. Gainera, geologoek aldaketa ezberdin hauengatik garai geologiko berri baten sartu garen eztabaidatzen daude: **Antropozenoan** egongo ginatete, batzuen arabera.

Aurtengo otsaileko Ingurumen Jardunaldiak espezieen desagerpen hori du ildo nagusi, eta gaiari buruz gehiago ikasteko aukera izango da. Jakinekoak dira *Homo sapiens sapiens* eragiten dituen



Aimar Uribealgo



Gizakia bizitzaren historiaren seigarren desagerpen masiboa sortzen ari da, dinosauroen desagerpenarekin alderatu daitekeena

gabe. Gizakia ere natura badelako, natura ere ironikoa da.

kalteak: ekosistemen suntsiketa, kutsadura fisikoa eta kimikoa, adibidez. Gaur egun inguruan eragiten ditugun aldaketen kausa garrantzitsu bat, halaber, espezie inbaditzaileek sortzen dutena da, **kutsadura biologikoa** deiturikoa. Espezie inbaditzaileak kanpoko espezieak dira, eta bertakoekin lehiatzen dira, inguruko oreka aldatuz eta batzuen desagerpena ekarriz. Espezie inbaditzaileen fenomenoak asko handitu da azken mende erdian, gizakiaren garraio ereduak dela eta, batez ere; gu gara espezie inbaditzaileen bektoreak.

Guzti hori kontuan hartuta, paradoxikoa da, espezie "inbaditzaile" (edo hobeto esanda, suntsitzaile) handienak, hau da, gizakiak, fenomeno hori guztia sortu izana. Eta hori gutxi balitz, espezie inbaditzaileak arazo bezala ikusten ditugu (Asiako liztorra, bisoi amerikarra, landare espezie pilo bat, etab.), beraien atzean gizakia dagoela ikusi nahi/ahal.

KUBA

Jende dexente dago gure artean Kubarekin nolabaiteko gertutasuna duenik, politikoki azken hamarkadetan munduan zehar izan duen eraginagatik, lan edo harreman pertsonalak dituztelako bertako biztanleekin, edota noizbait egon direlako bisitan. Azken aste hauetan jakin izan dugu aurretik eman ez diren bezalako aldaketak daudela abian eta askok galdetuko dute nondik norakoak izango ote diren.

Kubako ekonomiaren bilakaera ulertzeko 1959ko iraultzaren ondoren, hiru elementu kontuan hartu behar dira: a) AEBk 1960an ezarritako gaur egun oraindik indarrean dagoen blokeoa -90.000-100.000 milioiko kalteak gaurdano kubatarren iritzi-, b) gerra hotza eta Kubaren kokapena Sobietar Batasunaren eremuan, eta c) ekonomia planifikatuaren ezarpena.

Kubaren lorpenak zenbait arlotan oso aipagarriak izan dira baina Sobietar Batasunaren desagerpenak 80 hamarkadaren bukaeran izugarritzko eragina izan zuen Kubako ekonomian 90 hamarkadan, eta AEBren blokeoaren sakontzeak eta ekonomia planifikatuaren akatsak eta mugak "egoera berezian" murgildu zuen irla urte luzez. Egoera larri honi aurre egiteko zenbait aldaketa egin ziren, kanpo harremanetan gehiago barruan baino, baina emaitzak ez ziren onak izan



Luis Guridi



Nire ustez, segur aski ez dugu ezagutuko gehiago orain arte ezagutu dugun Kuba, Karibeko beste irla bat bihurtzeko arriskua dago 60 urte hauetan izan duen nortasuna galduz. Kubatarren esku dago

dugu ezagutuko gehiago orain arte ezagutu dugun Kuba, Karibeko beste irla bat bihurtzeko arriskua dago 60 urte hauetan izan duen nortasuna galduz. Kubatarren esku dago.

Azken urteetan, 2011ko Alderdi Komunistaren VI Kongresuaren ondoren, eta bereziki iaiztik hona, neurri berriak eta sakonagoak ageri dira, gehienak hainbat sektoretan merkatua hedatzearen aldekoak: etxebizitzaren eta autoen salmenta askea, kuentapropisten baimena, atzerriko inbertsioen bultzada, atzerriko diru bidalketak erraztea, kanpora eta kanpotik bidaiatzeko erraztasunak, etab.

Ez da erraza jakitea nora eramango duen honek, baina badirudi aldaketa hauek atzerriko inbertsioak, turismoa eta Miamitik etorriko diren negozioen eskuetan utzi dezaketela irla. Mundu kontsumista batez inguratura urritasunean urte luzez bizi izan den biztanleria kontsumoaren distiraren aurrean itsutzea ez da harrizkoa, eta horrek eguneroko bizimoduan aldaketa sakonak eragin ditzake, onerako eta txarrerako.

Ba ote zegoen beste biderik?. Agian aldaketak duela urte asko abian jarri izan balira -barrutik antolatua eta gidatua, endogenoak, egiturazkoak, ekonomikoak zein politikoak, elikagai subiranotasuna bermatzekoak-, ibilbide bestelakoa izango zen. Nire ustez, segur aski ez

Carmina Burana, Carl Orff eta damua

Igaro berri den urtearen hondarrean, abenduaren 28an eta Inuzente egunez, sorpresa polita eskaini ziguten Ganbara Abesbatzakoek Oñati eta inguruetako herritarroi. Carl Orff (1895-1982) musikagile alemanak moldatutako *Carmina Burana* izeneko kantata ospetsua entzuteko aukera paregabea izan genuen Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Ez da lan makala halako asmo zail bati ganoraz heltzea. Eta esan behar da txantxikuarrok, albo-herrietako kantari eta beste musikari batzuen laguntzaz, ederto erakutsi zizkigutela obra horrek dituen pasarte bikainak. Mila esker, bada, Aitor Biain eta Ganbarakoei, euren XX. urteurrena ospatu alde, egin ziguten opari ederrarengatik.

Dena den, aspalditik estimatzen dudana Orff-en obra famatu horrek beste oroitzapen eta pentsamendu batzuk ere ekarri dizkit gogora. Nahiz eta gure artean 1960ko hamarkadan ezaguna bihurtu, kantata hau 1937an estreinatu zen München, Berlingo olinpiadak baino urtebete beranduago eta Hitler agintean sendo zegoen garaian. Jakina da 1933 eta 1945 bitartean nolako kultura-politika basatia sustatu eta inposatu zuten naziek, Alemanian lehenbizi eta okupatutako lurraldeetan ondoren. Euren helburu zoroekin bat ez zetozen arte-mota guztiei *Entartete Kunst* deitu zieten, hau da, **Arte endekatua, degeneratua**.

Agintari alemanek orduko abangoardia denak kategoriatu horren barruan sartu zituzten: inpresionismoa, espresionismoa, fauvismoa, kubismoa, dadaismoa, surrealismoa, etab. Zerranda oso luzea osatzen duten artista banaka batzuk bakarrik aipatzearren, Max Beckmann, Otto Dix, Franz Marc, Ernst L. Kirchner, Oskar Kokoschka, Wassily Kandisky, Paul Klee, Marc Chagall, Emil Nolde, Edvard Munch edota Pablo Picasso gogoratuko ditugu: hauen arte-lanak debekatuak izan ziren, puskatuak eta erreak ere bai. Hermann Göring buruzagi nazi maltzur eta lotsagabeak, ordea, "endekatutako" obra pilotxo bereganatu eta, haiek atzerrian ezkutuan salduz, dirutza galanta irabazi zuen.

Musika-arloan beste hainbeste gertatu zen. Modernotasun guztiak eskumikatu egin zituzten eta eragotzi euren aipamena eta zabalkundea. Igor Stravinsky-gandik hasi eta Anton Weber-rainoko musikari abangoardistak debekatuak eta ahanzturaren leize-zulora jaurtiak izan ziren: Paul Hindemith, Béla Bartók, Kurt Weill, Arnold Schönberg, Alban Berg eta beste asko. Beethoven, Bruckner, Wagner eta halakoak soilik ziren benetako musikagile germanikoak. Mendelssohn eta Mahler klasikoagoak ere ezin ziren interpretatu, jatorri judua baitzuten. Jazza eta swinga, berriz, ez ziren onargarriak, beltzek sortutako erritmoak eta doinuak zirela-eta.

Gure Carl Orff gizon heldua zen 1933an eta bere ibilbide musikala garrantzitsua ordurako: jende askorekin izan zuen harremana Weimar-eko Errepublika garaian eta bere ekoizpena, zeharo abangoardista izan gabe, nahikoa modernoa eta progresista zen. Hala ere, Hitler-ek boterea eskuratu zuenean, azkar asko moldatu zen egoera berrian. Ez dirudi partidukoa izan zenik, Herbert von Karajan orkestra-zuzendaria lez, baina ez zuen aparteko eragozpenik eduki nazionalsozialistekin. Are gehiago, *Carmina Burana* kantata, hasierako kritikak ezkor batzuk gaunditurik, izugarriko arrakasta lortu zuen emanaldi ugariarekin Reich guztian gerra amaitu zen arte. Zergatik? Modernoa izan arren, gaia Goebels eta konpainiaren gustukoa zelako, agian? Germanikoa, alegia.

Gerra ostean purgatorio txiki eta labur bat jasan zuen, baina inolako kartzelaldi, zigor eta isunik gabe. Laster ekin zion obra berriak estreinatzeari, eta, nazi-aldian ezertxo pasatu ez balitz bezala, 1972ko Municheko olinpiada tragikoetako inaugurazio-ekitaldiko ikuskizunerako musika Carl Orff-eri enkargatu zioten. Ondotxo oroitzen naiz. Damu handiegirik azaltzeke, barkatu ez ezik saritu ere egin zuten Alemania berriko gobernariak. Willy Brandt zegoen kantziler Errepublika Federalean. Eta hau ez zen izan kasu bakarra, ezta gutxiagorik ere.

Bada, hemen ez dago horrelakorik. Etenik gabe hogeita lau edota hogeita zazpi urte espetxean igaro arren, inondiko lege-zirrikituak bilatzen dira, jadanik konplitutako kondenak luzarazteko. Sekula damu-izpirik agertu ez dutenek damua exijitzen die bizitza erdia itzalean pasatu behar izan dutenei. Zigorra da gauza bat, eta mendekua beste bat.

Jerardo Elortza

Carmina Burana kantata 1937an estreinatu zen München, Berlingo olinpiadak baino urtebete beranduago eta Hitler agintean sendo zegoen garaian.



Gerra ostean purgatorio txiki eta labur bat jasan zuen Carl Orff-ek, baina inolako kartzelaldi, zigor eta isunik gabe. Laster ekin zion obra berriak estreinatzeari, nazi-aldian ezertxo pasatu ez balitz bezala.



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIERA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriño buzoia, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko egoia, egurrinazko lantegia



160 KALE-ARGI berritu ditu Udalak

Bapore sodiozko argien ordeztze, LED teknologiadun argiak jarri ditu, sistema adimendunak

► Argiztapena hobetu eta energia kontsumoa gutxitzeko 650 kale argi berritzea asmoa du Udalak. Dagoeneko erdiak aldatu ditu.

Kaleko argiteria publikoa hobetu eta argindar kontsumoa gutxitzeko asmoz urrats inportantea eman du Udalak, errendimendu baxuko 160 luminaria berritzea erabaki baitu: Zubillaga auzoan 44, Migelena industrialdean 17, Kasablankan 32 eta Bidebarrieta kalean 57. Azken hauek aldatu gabe daude oraindik.

Aipatutako gune horietan LED teknologiadun argiak jarri dituzte, sodio lurrunezko bonbila zaharren ordeztze. LED argiek errendimendu hobea dute, iraupen luzeagoa eta mantenu-gastu gutxiago dutelako. Gainera, argiaren intentsitatea erregulatzeko aukera ematen dute.

Luminaria berriek nodo bat daramate barruan, eta horri esker, ordenagailu batetik kaleko argi guztiak monitorizatu eta kontrolatzeko aukera dago. Hala, farola bakoitzaren egoera ikusi eta argiaren intentsitate

tea doitzeko aukera dago ordutegi-tramo ezberdinen arabera.

Gainera, mugimendu sentsoreak jartzeko aukera ere ematen du. Hauetako esker, argiaren maila oinezkoen edo ibilgailuen presentziaren arabera doitzen da automatikoki, alperrikako kontsumoak saihestuz. Oraingoz, Osiñurdin poligonoan, Zubillaga auzoan eta Otadui zuhaitzitan jarri dituzte mugimendu sentsoreak.

ONURA EKONOMIKO ETA EKOLOGIKOAK

Kaleko argiteria berritzeak onura asko dakar. Batetik, kontsumoa gutxitzen da, LED argiek argindar gutxiago behar dutelako, eta horri esker, Udalak %80 inguru aurreztu dhal izango du kaleko argiaren fakturan.

Baina onura ekonomikoa ez ezik, ekologikoa ere badu, jakina, energia kontsumoa gutxituz gero, negutegi





Herrigunean kale-argi modernoagoak jarri dituzte, hauek ere LED teknologiadunak

Mugimendu sentsoreak (goian) eta urrutiko kontrolerako nodoak behean

SISTEMA ADIMENDUNA

Udala jartzen ari den luminaria berriak LED erakoak dira, bonbila zaharrek baino iraupen luzeagoa eta mantenu-gastu txikiagoa dutenak. Gainera, luminaria barruan jartzen diren nodoei (ikus irudia) esker, kale-argi berri guztiak ordenagailu batetik monitorizatu eta programatu daitezke, argiaren intentsitatea erregulatu ordutegi-tramo ezberdinen arabera. Gainera, zenbait lekutan, argazkikoa bezelako detektoreak ere jarri dituzte, eta kasu hauetan oinezkoen edo ibilgailuen presentziaren arabera erregulatu da intentsitatea automatikoki. Osinurdinen, Zubillaga auzoan eta Otadui zuhaitziko argietan jarri dituzte mugimendu sentsoreak.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behean
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK

PERISMAK, LUBRIKAK, LUR FORTANTZEAK, ARGIAK, PINTURIA LANAK...



BEHEKOAN ZURE ETXEN BERRITZAILERA

TRUKALDERA, KONPONKETA ETA ARGIAK GERTATZEKO

HEGARRIA 12.000 €tik - 20000 €RAK - KUPURUKA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

EGINDAKO LANAK

Oraingoz gune hauetako argiak berritu dituzte:

- Kale Zaharra
- Kale Barria
- Atzeko Kale (zati bat)
- Osiñurdir industrialdea
- Fanderia poligonoa
- Aozaratza
- Berezaoko poligonoa
- Migelena industrialdea
- Zubillaga
- Otañuri zuhaitzia
- Bidebarrieta (datozen egunetan)
- San Lorentzoko zenbait gunetan ere jarri dituzte argi berriak

efektua eragiten duten CO² gasen isurketa murriztea lortzen baita.

500 MILA EUROKO EGITASMOA

Udalak 160 kale-argi berritzeko egin duen aktuazio hau, egitasmo potoloago baten bigarren fasea izan da. Gogoratu, Udalak kale-argiteriaren eraginkortasunari buruzko auditoria-txostena egin zuela 2010ean, Sematec enpresaren bidez. Herrian dauden 2.250 argi-puntuak azterketa egin zen, eta horietatik 650 inguruk efizientzia eta errendimendu maila oso baxua zutelako ikusi zen.

Beraz, horiek guztiak berritzen joateko proiektua egin zuen Udalak, 425.000 (BEZ kanpo) euroko aurrekontuarekin.

Lehenengo, Kale Zaharra, Kale Barria eta Atzeko Kaleko (zati bat) argiak berritu zituen Udalak. Iaz, beste 166 luminaria aldatu ziren Osiñurdir, Fanderia eta Berezaoko industrialdeetan, eta orain, esan bezala, 160 kale-argi berritu ditu.

Azken aktuazio honen kostua 94.788 eurokoa (Bez kanpo) izan da; Gipuzkoako Foru Aldundiak 42.424 euroko laguntza eman du eta Euskal Energiaren Erakundeak 33.176 eurokoa.

Bestalde, Aozaratza kalean (19.200€) eta San Loren-

tzoko zenbait gunetan ere berritu dituzte argiak, bertako urbanizazioak berritzeko egin diren lanak aprobetxatuz.

ENERGIA ERAGINKORTASUNA

Udalak kaleko argiteria berritzen jarraituko du aurten ere. Oraindik erabaki gabe

dago non egingo den aurtengo aktuazioa, baina 2015eko aurrekontuetan 100.000 euroko diru atala bereiztu du Udalak energia eraginkortasuna hobetzeko lanetarako.

Ildo horretan, kale-argiak berritzeaz gain, beste hainbat proiektu ere baditu esku artean Udalak. Alde

batetik herrian dauden udal eraikinen eraginkortasun energetikoa hobetzeko proiektua lantzen ari da. Ildo berean, Olabarrietako etxebizitza sozialetan biomasa (pellet) bidezko berokuntza sistema ezarri du (42.554€), eta Pake Leku elkartearen ere gas galdara berria ezarri du (44.050€) gasolioaren ordez.

Umerezko ur biltegia martxan dago jada

San Martin auzoko etxeen hornidura bertatik egingo da aurrerantzean, ur presio arazoei konponbidea emanez



Urtarrilaren 26az geroztik martxan dago Umerezko ur biltegia, eta bertatik egiten da San Martin auzuneko etxeetako hornidura.

Umerezko depositora Urkuluko ura iristen da, Tokillotik barrena, eta, beraz, orain arte bezala, Urkuluko ura jasoko dute San Martinen, baina lehen baino presio handiagoarekin, Umerezko biltegian jarri dituzten bi motoponpei esker. Horrela, auzunearen goialdeko etxeetan izan dituzten presio baxuko arazoak konponduko dira.

Hornidura Umerezko depositotik egin ahal

izateko, lehenengo 350mm-ko diametrodun hodia sartu zen San Martin eta Umerez arteko bide ertzetik. Ondoren, 1998az geroztik geldi egon den Umerezko biltegia bera berritu eta egokitu behar izan da, hoditeria berritu eta presioa emateko ponpak jarri.



Argazkian ikusten diren bi ontzien artean 500m³-ko edukiera du Umerezko biltegiak. Halako beste bi ontzi ere baditu, behar izanez gero



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

GOMENDIO familiaren funtsa berritu eta deskribatu du Udal Artxibategiak

► XVIII eta XIX. mendeko dokumentuak gordetzen ditu 42 kaxatan. Besteak beste, lehen karlistadako eta kondearen ondasunen inguruko agiriak daude



Historialari eta ikerlariak informazio iturri garrantzitsu bat gehiago izango dute aurrerantzean udal artxiboan, XVIII eta XIX. mendeko hainbat agiri eta idatzi biltzen dituen Gomendio familiaren fondo dokumentala deskribatu baitu Udalak.

Denboraren poderioz agirietako asko zikin eta tolestatuta zeuden, ondoko argazkian ikusten den moduan. Beraz, aurreneko lana dokumentuak garbitzea izan da, eta, ondoren, material guztia deskribatu eta sailkatzea. Miravalles Restaura enpresak egin ditu garbiketa lanak (5.000€) eta Garazi Garaio Ellakuria andereak deskribapena (3.900€).

INTERES HANDIKO MATERIALA

Interes historiko eta kultural handiko funtsa da Gomendiotarrena, belaunaldi eta garai desberdinetako gertaerak islatzen dituelako. Historiako garai esanguratsuak (lehen Karlistada, Cadiz



Lehenengo, agiriak garbitu eta odoren deskribatu egin dituzte

inguruan sortutako merkataritza...) ikertzeko material ugaria dago, eta, gainera, familiako kideen arteko harremanak, garaiko pentsamoldea eta eguneroko bizitza aztertzeko iturri aberatsa da baita ere.

Gomendio familiako hiru kideek sortutako agiriak dira gehienak: "Luis Gomendio Larrea (Mexikon negozioak zituena), Jose Joaquin Gomendio (Oñatiko kondearen administraria zena)

Luis Gomendio Larrea (Mexikon negozioak zituena), **Jose Joaquin Gomendio** (Oñatiko kondearen administraria zena) eta **Justo Joaquin Alzaa Gomendiok** (lehen gerra karlista garaian Gipuzkoako kontularia zena) sortutako agiriak dira gehienak.

eta Justo Joaquin Alzaa Gomendio (lehen gerra karlista garaian Gipuzkoako kontularia zena).

Dokumentu gehientsuenak gazteleraz daude, baina latina, frantsesa eta euskara ere azaltzen da, tarteka. Hala, azpimarratzekoa da, 1764ko bi enpresa gizonen arteko korrespondentzian euskara ere azaltzen dela agurretan ('Kaixo', 'Zurekin hilartean'...).

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Garbitzaileen Gakoa


653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15




Zubillagako Fanderiako planoak



Zumalakarregi generalaren gutuna




Apaiz titulua



Duruarango maiorazkoaren errenta liburua



Escribanía de Flota itsasontzian idazten ziren eskriturak



Kondearen kontu-liburua 1744koa

'ESCRIBANÍA DE FLOTA'

Gutzira zortzi serie edo ataletan sailkatu dituzte dokumentuak: korrespondentzia, jarduera sozio-ekonomikoak, ondatsunen eskualdatzea, ondarearen administrazioa, auziak, kargu publikoak, argitaratutako dokumentuak eta dokumentu pertsonalak

Jarduera sozio-ekonomikoen sailean aipagarriak dira Luis Gomendio Larreak Cadiz eta Mexiko artean egindako mekatu-bitartekaritza lanaren inguruko agiriak. Bitxikeria moduan, 'Escribanía de flota' izeneko figura agertzen da, izan ere eskritura asko itsasontzian bertan idazten baitziren.

Sail berean, baina familiako negozioen artean, Zubillagako Fanderiako administrazioa eta bertako planoak ere badaude.

'Auziak' izeneko ataletan Jose Joaquin Gomendiok Oñatiko kondearekin izandako auziaren inguruko gorabeherak ikus daitezke, edota Gomendiotarren bi senideren artekoa, ezkontza kapitulazioak ez errespetatzeagatik.

'Kargu publikoak' izeneko seriean Jose Joaquin Gomendio Oñatiko kondearen ondasunen administrari garaian bildutako dokumentuak (kontuak, gutunak, ordainagiriak, alokairu eskriturak eta beste), edota Juan Antonio Alzaá eta Jose Joaquin Gomendio Oñatiko kontzejuko alkate eta alkateordeak izan ziren garaiko (1810-1813) ofizioak aurki daitezke.

LEHEN KARLISTADAKO AGIRIAK

'Kargu publikoak' izeneko serie berean Jose Joaquin Alzaa Gomendio

Gipuzkoako Kontularitza Orokorren kontuzaina izan zen garaiko (1834-1835) dokumentu interesgarriak daude lehen karlistada ikertzeko; Gipuzkoan zeuden batailoi ezberdinek bidalitako informazioak; janaria hornitzeko txartelak, soldaduen bajak eta altak, baimen bereziak...

Beste era bateko agiriak ere badaude; adibidez, familia ondasunak belaunaldiz belaunaldi transmititu ahal izateko dokumentuak: testamentuak, ezkontza-kontratuak, dohaintzak, ondasunen lagapenak, ahalordeak, salmenta eskriturak, alokairuak, obligazioak...

Hltz batean, interes handiko dokumentu bilduma, famliako kideen arteko harremanak eta garai hartako pentsamoldea eta egunerako bizitza aztertzeko.

Baserriko kiwi ekologikoak goxo-goxoak

3 tamaina (10kg, 5kg, 2kg)

Haundiak 19€
Ertainak 14€
Txikiak 11€

IRABAN baserria • Tel.: 944 78 18 32

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezereoen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baseri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, deñi ezagutu".

GAZTE LOKALAK AZTERGAI

Gazte, lokalen-jabe, bizilagun eta gurasoei zuzendutako saio bateratuak egingo dituzte otsaila eta martxoan



Gazte lokalen gaiak interes handia piztu du. Urtarrilean zehar egindako bileretan partehartze handia egon da, bai gazteen bileran eta baita bizilagun, guraso eta lokalen jabeenean ere.



Gazteen lokalen fenomenoaz aztertzeko Udalak antolatu duen partehartze prozesuak bere lehen fasea osatu du, eta orain arteko balorazioa positiboa da, bai kuantitatiboki eta baita kualitatiboki ere. Jende askok parte hartu du orain arte egin diren hiru bileretan, eta parte bakoitzak (gazteek, gurasoek, lokalen jabeek eta bizilagunek) beraien gogoetak, kezkak, beldurrak, eskariak eta proposamenak azaldu dituzte.

Gurasoek eta bizilagunek segurtasunaren inguruko kezka agertu dute bereziki, eta beharrezkoa ikusten dute arautegi bat eta kontrola. Lokalen jabeek eta gazteek ere begi onez ikusten dute arautegi edo protokolo moduko bat adostea, batez ere elkarbizitza arazoak ekiditeko.

Orain, alde bakoitzaren erantzukizun maila zehaztu eta araudi edo protokolo hori adostea izango da, otsailaren 11tik aurrera egingo diren saio bateratuen helburua. Udalak talde eragile bat osatu du, guraso, lokalen jabe, bizilagun eta gazteen ordezkariekin, prozesuaren jarraipena egiteko.

SAIO BATERATUEN EGUTEGIA

- ▶ **OTSAILAK 11** (Gaztelekua, 18:30)
'Nolako da gazte lokalen inguruko elkarbizitza? Harremanak eta beharrak'
- ▶ **OTSAILAK 25** (Gaztelekua, 18:30)
'(Nolako) elkarbizitza nahi dugu? Ze egoeran egon beharko lukete lokalek?'
- ▶ **MARTXOAK 11** (Gaztelekua, 18:30)
'Elkarbizitza... Hartu eta eman. Zer adostu dezakegu?'

HONDAKINEN INFORMAZIO BULEGOAREN OHARRAK

LARRIALDI GUNEA

Larrialdi guneak erabiltzeko laguntza orria bidali da etxeetara, telefono zenbakia duen iman batekin. Telefono bidezko sarbide automatikoa dhalbidetzen duen sistema erabiltzeko jarraitu beharreko urratsak azaltzen dira bertan. Momentuz herriguneko erabiltzaileentzako zerbitzua da, Denda eta elkarteentzat aurrerago zehaztuko da. Landa eremuko bizilagunek beraien ekarpen guneak erabili behar dituzte, orain arte bezala.

Larrialdi guneak ETEO zaharreko eraikin pareko aparkalekuan eta Urrutxuko garbigunearen gaineko aparkalekuan kokaturik daude.

Momentuz, herriguneko bizilagunentzako zerbitzua da. Denda eta elkarteentzat aurrerago zehaztuko da



GARBIGUNE IBILTARIA

Garbigune zerbitzua herritarrei hurbildu eta errazteko asmoz, Garbigune Ibiltaria hamabostean behin egoten da Oñatin, kiroldegiko biribilgunean (azoka ondoran), 10:30etatik 21:00ak arte. Hurrengo egunak: **otsailak 5 eta 19**, eta **martxoak 5**. Honako produktuak utz daitezke bertan: aerosolak, bonbilak, inprimagailuetako kartutxoak, CD/DVD, pilak, termometroak, motore-olioa, bateriak, pintura, disolbatzaileak, erradiograiak, aparatu elektriko eta elektroniko txikiak (batidora, plantzak...)



3 EDUKIONTZI BERRI

Uhunkiak, arropak, oinetakoak eta osagarriak botatazeko 3 edukiontzi ZURI berri jarri ditu mankomunitateak: **Zubillagan**, **San Lorentzon** eta **San Martinen**. Lehendik Errekalden, bidebarrietan, Olakuan eta Lizaur kalean daude. Apurtuta eta hondatutako materiala ere bota daiteke. Poltsa txikiak erabili, atea tratu ez dadin.





Latsarria berritu dute Olabarrietako auzotarrek

Ugarte baserri ondoko latsarri edo albergia (labaderoa) berritu dute Olabarrietako auzotarrek. Garbitokia bera ondo zegoen, baina teilatua eta egurrezko egitura egoera txarrean zeuden eta, hala, udaleko 'Auzotasuna' programaren barruan, garai bateko usadio eta bizimoduaren lekuko den ondare hau berritzea erabaki dute olartarrek.

Era honetako latsarri edo albergak ohikoak izan ziren XIX. eta XX. mendeetan zehar. Etxeetan ur korronterik ez zegoenez, bertan garbitzen ziren maindireak, mantak, alkandorak eta bestelako erropa guztiak. Gainera, garbitoki hutsak baino gehiago ziren; emakume askoren bilgune izaten ziren, eta bertako egonaldia aprobetxatu ohi zuten elkarrengandik ikasi (joste-lanetan, sukaldaritzan, bertso-kantuan...) edo kontu kontari egoteko, beste barik. Oñatin hogeitabi labadero egongo ziren, eta estali gabeko puxeta-harriak berriz, askoz gehiago.

Olabarrietako alberga hau ez dakigu zehazki noizkoa den, baina izango ditu ehun bat urte. Hiru Ugarte baserrien artean eraiki zuten auzolanean, eta, bertakoek azaldu digutenez, Ugarte Erdiko Frantziska Markuleta zenak orain dela 20 urtera arte erabili izan zuen erropak garbitzeko.

Ugartekoez gain, Olabarrietako goiko auzoko baserrietakoek ere erabiltzen zuten labadero hau, batez ere udan, baina Ugartekoak joaten zirenean, hauek omen zuten lehentasuna.

'AUZOTASUNA' PROGRAMA

'Auzotasuna' izeneko programa 2013an jarri zuen abian Udalak, auzoen arteko elkartasuna eta auzolana sustatzeko asmoz. Urtean 100.000 euroko diru-poltsa jartzen du Udalak herrian dauden 16 auzoen artean banatzeko, eta auzo bakoitzak erabakitzen du zertara bideratu dagokion diru-poltsa. Hala, ekimen interesgarriak egiten ari dira auzo guztietan. Olabarrietan bertan, esaterako, iaz segurtasun hesia jarri zuten oinezkoen pasealekuan; Garagaltzan antzinako kaltzada berritzen dihardute, eta Araotzen bolatokia eta pilotalekua egokitu dituzte, batzuk aipatzearen.



Ur askaren inguruan arropa joteko lau garbiketaharri ditu Olabarrietako albergak

LAN ORIENTAZIO ZERBITZUA

urte bat bete du Udalak Mankomunitatearen bitartez eskaintzen duen lan orientazio zerbitzua. Lan bila ari diren gizon-emakumeei laguntzeko zerbitzua da, eta asteazken goizetan eskaintzen da Oñatin, Enplegu zerbitzuaren bulegoan (Bidebarrieta 12). Zerbitzua doakoa da, baina aurrez txanda eskatu behar da 943793090 (Zuriñe) zenbakira deituta.

Adierazpen libreko hiru gune berri

Kartelako eta bestelako informazioa itsasteko hiru gune berri jarri ditu Udalak: Errekalden bat (49 zenbakidun eraiki-neko orman), eta Kale Barrian bi (plaza ondoan bat, poltseriako orman, eta Patruie Kaleko bidegurutzetan). Udalak dei egiten die herritarrei gune hauek erabil ditzaten kartelak jartzeko.



Arrikruzteko koba bisitatzeko erreserba behar da otsailean

Otsailean zehar itxita egongo da Arrikruzteko koba. Hala ere, astegunetan zehar taldeentzako erreserbak onartuko dituzte, eta asteburuetan ere bisita gidatuak egiteko aukera egongo da, beti ere erreserba egiten bada aurrez, 943082000 telefonora deituta.

Parkinetako barrerak manipulatzeko zigortuta egongo da

Herritarrek behin baino gehiagotan eskuz behartu izan dituzte Kiroldegiko eta Kalegoienako parkinetako barrerak, matxurak eta galera ekonomikoak eraginez. Jokabide horiek zigortzeko asmoz, udal aparkalekuetako estazio-namendua arautzen duen ordenantzan arau-hauste berri bat sartu du Udalak. Hala, barrera eskuz manipulatzeko 50€-ko isunarekin zigortuko da aurrerantzean.

Udalak UEMArek babesa izango du Urkijok tartejarritako auzian

Espainiako gobernu ordezkari Carlos Urkijok auzitara eraman du Oñatiko udala eta beste hamabi, gobernu batzordeko eta osoko bilkuretako aktak euskara hutsez bidaltzen dizkioteko. UEMAK (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) euskararen ofizialtasuna zalantzan ipintzen ari dela esan du, eta aholkularitza juridikoa eskainiko die Urkijoren helegitea jaso duten udalei.

Lorezantza zerbitzua eta musika taldeentzako lokalak lizitaziora

Udalak lizitaziora atera du herriko berdegune publikoan lorezantza zerbitzua 235 mila eurotan (BEZ kanpo). Martxoaren 2ra arteko epea zabaldu da proposamenak aurkezteko. Bestalde, TEO zaharreko erdi-sotoan musika taldeentzako entsegu-lokalak prestatzeko lehen faseko lanak 379.306 (+BEZ) eurotan atera ditu lizitaziora. Hamar lokal txiki (30m²) eta gela handi bat (65m²) egingo dituzte.

EH Bilduk eta EAJk aurkeztu dituzte ALKATEGAIAK

Mikel Biain, egungo alkatea, izango da ezkerreko koalizioaren zerrendaburua, eta Miren Elgarresta jeltzaleena



Programa landu batekin joango gara herritarrengana konfiantza eske, eta seguru nago hori gobernu programa bihurtuko dela

Mikel Biain, egungo alkatea, izango da EH Bildu koalizioaren zerrendaburua maiatzaren 24ko hauteskundeetan. Biainek eskerrak emanez hasi zuen bere hautagaitza aurkezteko hitzaldia. Eskerrak, aurrena, 2015-2019 legealdirako herri programaren lanketan parte hartzen ari diren herritar guztiei. Eskerrak baita ere, azken lau urteotan gobernu arduetan taldekide izan dituen zinegotzi eta lankideei. Eta eskerrak, bereziki, familiakoei; “zuen laguntza barik, ez zen posible izango”.

Biainek adierazi zuen kudeaketa eredia aldaketako asmoz saru zirela udaletxean. “Ildo horretan, partehartze dinamika berriak eta elkarlanerako gune iraunkorrak eratu ditugu; hala nola, Hezkuntza mahaia, Sozioekonomia mahaia, Auzoalkateen foroa, Bedintasun batzorde irekai, Hondakinen mahaia...”.

EH Bilduren hautagaiak adierazi zuen erakundeetan lan eginda eraldaketa sozialerako bidea jorratu daitekeela, Gipuzkoako Foru Aldundia “adibide on bat” dela gaineratuz.

Biainek esan zuen ohore bat dela berriro ere EH Bilduko zerrendaburu izatea. “Erronka polita daukagu hurrengo lau urteetarako. Orain, gainera, udaletxeko gorabeherak ezagutzen ditugu eta hori ere baliatuko dugu programa sendo bat egiteko”.

Hain zuzen ere, urtarrilaren 31n egin zuen Oñatiko EH Bilduk herri programa lantzeko bigarren tailer irekia. Bi hilabete eta erdiz arloz arlo landu dituzten proposamenak partekatu zituzten, eta orain, proposamen horiek kontrastatuko dituzte herriko eragileekin. Gainera, edozein herritarrek izango du ekarpenak egiteko aukera onati@ehbildu.com helbidean edo kirolegian, kultur etxean, Lagun Lekun, udaletxean eta Super BMn jarri dituzten postontzietan. ■



Udal kudeaketa ona eskaini nahi diogu herriari; gardentasunean oinarrituko dena, inprobisaziorik gabea eta eraginkorra

Miren Elgarresta izango da EAJ-PNVren zerrendaburua maiatzeko udal hauteskundeetan. Formazioz albataria, baserri munduko eta lehen sektoreko enpresetan egin du lan urte luzez. Azken urteotan, ingurumen alorrean dihardu lanean, Arantzazuko parketxeko proiektuen teknikari gisa.

Orain arte ez du esperientziarik izan politika mailan, eta bere burua kudeatzaile edo gestoretzat du Elgarrestak. Hain zuzen, bere ekarpen nagusia kudeaketa mailan egin dezakeela esan du; “udalerriko eginkizunek, politikarekin baino kudeaketarekin zerikusi gehiago dute, azken finean, herri batean, herriak berak dituen ondasunak eta herritarren beharrek dute lehentasuna”.

Alkategai jeltzalearen xedea da Bilduren alternatiba izatea, Oñatiko herriari “udal kudeaketa ona” eskaintzeko; “gobernu ona osatzeko, gardentasunean oinarrituko dena, inprobisaziorik gabea, plangintzan oinarritutakoa, egonkorra, eta eraginkorrak izango diren proiektuak bultzatuko disuena.

Bizi dugun krisi garaian, ekonomiak izan behar du politikaren ardatz nagusia Elgarrestaren ustez, “herritarren ongizatea eta gizarte politikak ekonomian oinarritzen direlako”. Hala, Oñatiko ekonomiaren motorra industria denez, herriko enpresa handi nahiz txiki bultzada ematea beharrezkotzat jotzen du. Halaber, industria jasagarrirago baten alde lan egiteko asmoa azaldu du.

Mikel Iturrospe Oñatiko EAJko buruak eskertu egin zuen Mirenek herriarekiko erakutsitako konpromisoa, gaur egun ez baita erraza udalgintzan aritzeko konpromisoa duen jendea aurkitzea. Iturrospek azpimarratu zuen berriro ere emakume bat aukeratu dutela zerrendaburu izateko, “berdintasunean benetan sinisten dugula erakutsiz”. Iturrospen ustez Oñati kudeatzeko pertsonarik egokiena da Elgarresta, bere formazioagatik eta ibilbide profesionalagatik. ■

Lurjausi ugari euriten ondorioz

Ondorio latzak utzi zituzten joan den asteko euri jasek Oñatin. **Fanderia** inguruan, San Prudentzioko bidean gertatutako lurjausiaz gain, herriko auzo-bideetan ere kalte ugari eragin dituzte euriteek. Potoloenak **Murgia** auzoan (Murgialdairako bidean), **Larrañan** (Errekalde eta Lizargarate artean) eta **Urrexolan** (Baltzola baserrira bidean) gertatu dira. Baina beste hainbat lurjausi txiki ere gertatu dira: **Askazuriko** bidean, **Urrexola Beiti** eta **Barrenetxe** inguruan, **Errotatxon**, **Garagaltzan** eta **San Julianeko** bidean, besteak beste. Udal zerbitzuek lehenbailehen garbituko dituzte gunehoriek.



Larrañan eta Murgian gertatutako lurjausien irudiak

San Prudentzioko autobus geltoki berria martxorako prest egongo da

Martxoaren 1ean jarriko dira martxan autobus zerbitzu berriak

Martxoan jarriko dira martxan autobus zerbitzu berriak Debagoienean, eta ordurako prest egongo da Elorregi-San Prudentzioko geltoki berria. Halaxe esan zuen Larraitz Ugartek, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak, Bergara eta Elorregi arteko bidegorriaren inaugurazio ekitaldian.

Autobus geltoki berria egokitzeko lanak oso aurreratuta daude. Geltokia babesteko duen markesina edo estalika, eta hamar bat bizikletentzako aparkaleku estalia jartzea besterik ez da falta. Otsailean zehar egingo dituzte lan hauek.

Autobus geltokia bidegorriarekin lotu dute, 1,5 m.-ko espaloi baten bidez, eta 40 bat autorentzako aparkalekua ere egokitu dute geltokiaren atzealdean. Guztira, 115.000 euro inguru inbertituko ditu Aldundiak geltoki berria.

AUTOBUS ZERBITZU BERRIAK

Martxoaren 1ean jarriko dira martxan autobus zerbitzu berriak Debagoienean, eta ordutik aurrera autobus guztiak (norabide batekoak zein bestekoak) San Prudentzioko geltoki berria geratuko dira. Horrela bidaiariak errepidea zehar-



Larraitz Ugarte

Autobus guztiak geratuko dira Elorregiko geltoki berria, harik eta eskaripeko sistema behar bezala garatu arte

katzen ibiltzea saihestuko da. Larraitz Ugartek argi utzi nahi izan zuen, autobus guztiak (bai Oñatitik doazanak eta baita ibilbide

luzekoak ere) geldituko direla San Prudentzioko geltoki berria, harik eta eskaripeko sistema behar bezala garatu arte.

INFORMAZIO KANPAINA

Foru diputatuak esan zuen otsailean zehar informazio kanpaina bat egingo dutela, eta etxe gutzietara banatuko dutela martxoan ezarriko diren autobus zerbitzu berrien inguruko informazioa.

Aldizkari honen azaroko zenbakian aurreratu genituen Oñatiri eragingo dioten linea edo zerbitzu berriak.



Bergara eta San Prudentzio-Elorregi artean Foru Aldundiak egokitu duen bizikleta eta boinekoentzako bidea inauguratu zuen Larraitz Ugartek urtarrilaren 29an. Bergarako Ibarra kalean hasi eta Tavesa enpresaren lursailen mugaraino iristen da bidegorria; 2,6 km. luze eta 4 m. zabal ditu. Lanek 740.890 euroko kostua izan dute, "aurreko legealdian zegoen proiektuaren kostua (2 milioi) erdira jeitsiz", Larraitzek azpimarratu zenez. "Esfortu handia egiten ari gara proiektuak berraztertzeko eta, funtzio berak mantenduz, proiektu xume eta egingarriagoak bultzatuz, eta bidegorri hau da adibide bat".

Horrenbestez, Tavesa enpresaren lursailtako 500 m.-ko tartea besterik ez da falta Bergara, Oñati eta Arrasate bidegorriz lotuta gera daitezen. Larraitz Ugartek esan zuen Aldundiak martxan duela Tavesako bidegorri zatia eraikitzen hasteko prozedura administratiboa, baina oraindik luze Joako duela, lursailak desjabetu egin behar direlako eta, gainera, kutsatutako lur industrialak delako.

OÑATI MOVIL

TELEFONIA ETA ENERGIA

Tarteka, Udal Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu orriotan. Oraingoan, Intz Gomesek zabaldu duen 'Oñati Movil' zerbitzu berria aurkezten dizuegu. Alde batetik, sakeleko telefono libreak saldu eta konpontzen ditu; horrez gain, telefonia eta argindar konpainien artean dauden tarifa eta eskaintza onenak aurkitzen eta tramiteak egiten laguntzen dut: altak, konpañia aldaketak...

Zer dela eta erabaki duzu 'Oñati Movil' sortzea?

Mikrosistema informatikoen arloko formazioa daukat, eta, bestalde, energia sektorean komertzial lanak ere egin ditut. Beraz, ondo ezagutzen ditudan arloak dira, eta uste dut jende askorentzako lagungarria izan daitekeela era honetako zerbitzu bat.

Zehazki, zein zerbitzu eskaintzen duzu?

Telefonia arloan sakeleko telefono libreak saltzen ditut, hau da, edozein konpañiarekin funtzionatzen dutenak. Telefonoentzako osagarriak (arkatz taktikal, fundak, bateria eramangarriak...) ere saltzen ditut. Konponketak ere egiten ditut, pantaila aldaketak batez ere, marka ezagunenak (Samsung, LG, Sony, Iphone...).

Horrez gain, telefonia kontratuen inguruko tramitazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen dut: eskaintza onenak, konpañia aldaketak, tarifa aldaketak, altak...

Ze konpañiarekin egiten duzu lan?

Oraingoan, 'Republica Móvil', 'Happy



Lazarraga kaleko 3an dago Oñati Movil

Tel.: 688634064 / Eposta: intzgomes@gmail.com

Móvil' eta Más Móvil'-ekin. Estatu mailan prezio onenak dituzten konpañiak dira; ez dute permanentziarik eskatzen, zerbitzu ona ematen dute (Orange-ren sarea erabiltzen dute) eta oso argiak dira.

Horiez gain, Orange, ONO, Euskaltel eta Movistar-ekin ere harremanetan nago, eta laister, konpañia horiekin ere lan egiteko moduan izango naiz.

Energia arloan zer eskaintzen duzu?

Merkatuan dauden aukera eta eskaintza ezberdinak aztertu, eta kasu bakoitzerako egokiena den kontratua aukeratu, konpañia aldaketak tra-

mitatu... Merkatua ondo begiratu gero, urtean 50 bat euro aurrezteko aukera dago.

Partikularrei zuzendutako zerbitzua da, ala enpresendako ere egiten duzu lan?

Oraingoan, batez ere partikularrekin ari naiz, baina autonomoek edo enpresa txiki edo handiek aholkularitza nahi badute, merkatuan dauden aukerak aztertu eta beraientzat egokiena dena aukeratzeko lagunduko diet. Zenbat eta telefono linea gehiago eduki, eta zenbat eta energia gehiago kontsumitu, orduan eta gehiago aurrezteko aukera dago. ■

MAPFRE
Oñati

Paritu kalea, 5
20660 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Berria, 42 behean • Tel.: 943 78 05 87 • email: inborta@telefonos.es

DESBERDINEN ARTEKO ELKARLANA JOSIZ, ERABAKIA EHUNTZEN**GURE ESKU DAGOk erabakitzeko eskubidearen aldeko ekimen berria aurkeztuko du otsailaren 9an**

lazko ekainaren 8an oñatiar asko izan ginen erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katera bildu ginenak. Iruñea eta Durango artean dauden 123 kilometroak desberdinen arteko topaleku bihurtu genituen.

Herri bat garela, erabakitzeko eskubidea dugula eta herritarren garaia dela oinarriekin bat egin genuen guztiok.

Erabakiaren aldeko europar olatuaren baitan gabiltza eta horretan jarraitu behar dugu. "Gure esku dago" dinamika bat baino gehiago jarrera bat baita, gure etorkizuna gure esku dagoela jakinik herritarrok hartzen dugun jarrera.

Hurrengo pausoa, aldarrikapena ehuntzea izango da. Norberaren atxikimendu pertsonala oihal zatietan azaldu eta josiko ditugu.



20 laguneren atxikimendua bilduko duten oihal unitate bakoitzaren ardura izango duten "tutoreak" izendatuko ditugu. Oñatin bildutako oihal zati guztiak josteko **EHUNTZE EGUNA** ospatuko dugu apirilaren 25ean. Ekainaren 20a berriz, **JOSTE EGUNA** izango dugu hiriburuetan. Herri prestaturako oihalak josiz hautestontzi erraldoiak osatuko ditugu.

'Desberdinen arteko elkarlana josiz erabakia ehuntzen' ekimena otsailaren 9an aurkeztuko dugu Gaztelekuan, 19:00etan. Hurrengo astean, otsailaren 16an, 'Jostunak' dokumentalaren emanaldia eskainiko dugu Santa Ana aretoan, 19:00etan. Herri borondatearen jostun izan nahi duzuen oñatiar guztiok bi ekitaldietara gonbidatuta zaudete.

OÑATIKO "GURE ESKU DAGO" TALDEA

OÑATIKO EMAKUMEEN DIBERTSITATEA EZAGUTZEN

Andraitz Talde Feministak antolatu duen Jabekuntza Eskolaren barruan 'Oñatiko emakumeen dibertsitatea' izeneko tailerra egingo da otsaila eta ekaina artean. Hamar saio izango dira, hileko bi: **Binarismo sexuala** (otsailak 10); **'Opresio edo zapalkuntzarako sistema ezberdinak'** (ots. 24); **'Patriarkatua'** (martxoak 10). **'Amatasuna'** (mar. 24); **'Ekonomia eta zaintza lanak'** (apirilak 14); **'Lesbianak, Transexualak et Transgeneroak'** (ap. 28); **'Etorkinak'** (maiatzak 12); **'Musulmanak'** (mai. 26); **'Dibertsitate funtzionala duten emakumeak'** (ekainak 2); eta **'Feministak'** (ek. 16). ETEO zaharrean egingo dira saioak, asteartetan (18:15-20:15), gazteleraz, Garaipen Eskola Feministak dinamizatuta. Izen-ematea: a.jabekuntzaeskola@gmail.com

**'EUSKERIA IXUKETAN' SARIAK**

'Euskaria ixuketan' izeneko ekitaldia antolatu dute bigarrenkoz Elkar Hezi ikastetxeko batxilergoko ikasleek. Euskara eta kirolaren inguruko mahaingurua egin zuten aurrena, Eli Pinedo, Aritz Ejea, Ane Pescador eta Fran Garagarzarekin. Amaieran, Aloña Mendi kirol elkarteak, Aratz Losada (OK Magazine), Iosune Odriozola (igerilaria) eta Felipe Uriarte (mendi gidaria) saritu zituzten, euskararekin duten konpromisoa eskertuz.

PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA

Tfn: 943 71 84 79

bidebarri@terra.com

iurrutia.bidebarri@gmail.com

ADMINISTRAZIO LANAK

-Kontratua egitea

-Gizarte Segurantzaren alta ematea

-Nominak egitea

HAUTAGAIEN AZTERKETA

-Enpresako konfidantza-zako langileak

-Esperientziadunak

Jonan Fernandez / Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkaria

“Iragana da arazo nagusia; ez dugu lortzen alderdien arteko adostasunik irakurketa kritiko bat egiteko”

Jonan Fernandez, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia Oñatin izan zen urtarilaren 21ean, EAJk gonbidatuta. Gaur egungo egoeraren analisia egin zuen bakea eta bizikidetzaren ikuspuntutik. “Duela bost edo hamar urte baino askoz hobeto gaude, eta hobera egiteko marjina handia dugu”.

Gizartearekin (hezkuntza, gaztedia, gizarte mugimenduak...) zerikusia duten gaietan prozesua oso ondo doala esan zuen. “Gizartea, oro har, konbentzimendu osoz ari da bidea egiten elkarbizitzaren alde, arazo handirik gabe, eta hori oso inportantea da, prozesua atzerazina bihurtzen baitu.

BLOKEO PUNTUAK

Hala ere, bake eta bizikidetzaren prozesua oztopatzen duten hiru arazo edo blokeo puntu ditugula esan zuen Fernandezek. Batetik armagabetzea. “ETAk indarkeria utzi ondoren, armagabetzea etorri beharko litzateke, amaiera ordenatu bat emanez; baina ez dugu aurrera egiten, Espainiako gobernuak ez duelako parte hartu nahi, harrigarria bada ere. Ez dut uste beste inon gertatu denik halakorik.”

ETAren ere jarri zuen erantzukizuna Fernandezek, gobernuaren itxikeriak ez duelako esan nahi beste alternatibarik ez dagoenik. “Eta hala, arazo ez ezik, aitzakia ere bilakatzen da armagabetzea, batzuek urratsik ez emateko”.

Kartzela politika da beste arazo bat. Madrilgo gobernuak salbuespeneko politika aplikatzen jarraitzen du, zentzurik ez duena. Eta, bestalde, preso kolektiboa ere ez da jorratzen ari kartzela-onurak lortzeko legediak ematen dituen aukerak, Fernandezek ustez.



“Iraganean izandako giza eskubideen urraketa guztiak azaldu behar dira, elkarrekin konparatu eta konpensatu barik”

Hirugarren arazoa iragana da. Horixe omen da zailtasun handiena. “Iraganean aurkitzen da erruaren diagnostika: zein da erruduna? Nork du erantzukizun handiagoa? Mesfidantza handiak daude, eta iragana bihurtzen da elkarri jaurtitzeko arma. Ez dugu lortzen adostasunik alderdien artean iraganari buruzko balorazio kritiko bat egiteko”.

HIRU ESTRATEGIA

Arazo horien aurrean hiru estrategia ezberdin ikusten ditu Fernandezek. Alde batetik Espainiako gobernuak dago, goi mailako estatu politika egin ordez, ETA aktibo balego bezala jarraitzea erabaki duelarik, hauteskundeetan botoak emango dizkiolakoan.

Bestalde, ETA eta Ezker Abertzaleari dagokionez, erbaki estrategikoak 2016ra arte atzeratzea erabaki dutela esan zuen Fernandezek. “Nire ustez akatsa da, testuinguru oso aldakorrean bizi garelako, eta gauzak ez direlako izaten beti guk nahi edo pentsatu bezala”.

Horren aurrean, Jaurlaritzak lanean tinko jarraitzen duela esan zuen Fernandezek, oztopoak gainditzeko proposamen konkretuak eginez; hala nola, ‘Hitzeman’ programa (presoen bergizarteratzea ahalbidetzeko) edo ‘Zuzenbidean’ ekimena (normaltasun penala eta kartzeletakoa berreskuratzeko hoge proposamen).

IRAGANAREN PISUA

Iraganari aurre egitekoan kontuan hartu beharreko irizpideak ere aipatu zituen Fernandezek. “Batetik, iraganen gertatu diren giza eskubideen urraketa guzti guztiak azaldu eta argitu behar dira, elkarrekin nahastu, konparatu eta konpensatu ibili barik. Urraketa bakoitzak behar du bere balorazio kritiko bat”.

Bestetik, iraganari buruzko interpretazio ezberdinak egongo direla onartuta ere, beharrezkoa da balorazio partekatu minimo bat. “Guk proposatzen dugun mikro-akordioa zera da: indarkeria mota guztiak gertatu direla, giza duintasunaren gainetik jarri direlako helburuak eta ideiak”.

Iraganak pisu oso handia du, eta ulergarria da akordiora iristeko alderdiek duten zailtasuna; “edozein urrtas emanda, besteari mesede egingo dioten beldur dira”. Hala ere, baikor begiratzen dio etorkizunari Fernandezek. “Akordioa ezin da izan abiapuntu baldintza. Lortuko dugu bidean. Gizarte honek merezi du lau edo bost familia politiko nagusien arteko adostasun minimo bat”.

Horretarako, jarrera erakitzailea eta autokritika aldarrikatu zituen Fernandezek. “Iraganean gertatutako giza eskubideen urraketa guztien gaineko dinamika zintzo eta autokritikoa sortu behar dugu. Adibidez, denok egin beharko genuke autokritika 70 eta 80ko hamarkadetakoa biktimen inguruan izan genuen jarreraren inguruan. Indarkeriak garai hartan utzi zuen errealitatea ikaragarria da; familiak ahaztuak izan ziren, orduko biktimek ez zutelako gaur egun duten kontsiderazioa”. ■

**ARANBURU
ALTZARIAK**
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

Sari Lorentzo 4 beheka | Tel. 943 78 05 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

Hermansoloñak azken bi kontainerrak bidaliko ditu Argentinara

Argentinako aduanarekin dituzten arazoen ondorioz hartu dute erabakia

Hermansoloña (Oñatiko Anaitze Solidarioak) taldeak Argentinara laguntza kontainerrak bidaltzeari utziko dio. Aurtengo biak izango dira azkenak, ia seguru. Taldeko presidente Jose Antonio Urteagak eman dizkigu azalpenak.

Aurten (martxoan eta urrian) Argentinara bidaliko dituzuen bi kontainerrak azkenak izango omen dira. Zergatik?

Argentinako aduanan dugun arazoa da arrazoi nagusia. Aurrez baimen guztiak lortuta ere, bost edo sei hilabetez egoten da geldi Zarateko (Buenos Aires) portuan. Horrek buruko min handiak sortzen dizkigu, eta nekatu egin gara. Hobe da gure energiak beste lan batzuetara bideratzea. Argentinako lagunak penaz daude, baina ulertzen dute.

Baina Hermansoloñak bizirik jarraitzen du, ezta?

Bai, noski. Gu lanerako gogoz gaude. Gure lanaren alderik ikusgarriena kontainerra izaten da, baina horrez gain hainbat proiektu ditugu martxan Oñatirekin anaitutako Jose C. Paz hirian (Argentina): tailerrak, pobreentzako jangelak, ortuak, ikasgelak, bekak...

Urtero 40.000 euro inguru bideratzen ditugu hara. Udalak, enpresek (Orona, Irizar, Ulma) eta gure bazkideek emandako diruari esker. Proiektu horietan jarraitu egingo dugu, ahal bada lehen baino indar gehiagorekin.

Aurtengo helburu nagusia



Hermansoloña taldeko kideak. Esther Castaño falta da

Hermansoloñak lanean jarraituko du Argentinako proiektuetan eta beste GKE batzuekin batera, Haitin, Malin, Etiopian...

izango da, Oñatiko diruarekin eraiki dugun eskola-tailerra (arozgintza eta soldadura) martxan jartzea.

Argentinan bakarrik ez; Afrika eta Latinamerikako beste proiektu batzuetan ere badiharduzue

Bai. Hil honetan, adibidez, Oñatiko parrokoaren bidez Malirako janari bilketa kanpainen lagunduko dugu, materiala batu eta gure lokalean sailkatuz.

Oñati mailan Caritasekin eta ACESMArekin lankidetzan ari gara, eta Dominikarren elkar-tearekin ere elkarlanerako bideak zabaldu nahi ditugu.

Bestalde, Donostiako eliz-

barrutiarekin eta bere inguruko GKEekin (Herriak Elkar Lanean, Etiopia Utopia...) ere ari gara lanean Haitin, Mali eta Etiopian, besteak beste. Esperientzia, lanerako gogoia eta azpiegitura badaukagu eta, beraz, laguntzeko prest gaude beti.

Herritar askok eramaten dute erropak eta bestelako materiala zuen lokalera (Bidebarrieta 22). Jarraitu behar duzue materiala hartzen?

Gu prest gaude batzen jarraitzeko. Jendeak erropa onak ekartzen ditu, eta guk ez dugu arazorik material hori guztia jaso eta sailkatzeko. Kontua da, material horri irteera eman behar zaiola, eta Argentinara bidaliko ez dugunez, Caritas eta ACESMArekin hitz egin behar dugu; irtenbideren bat proposatzen badigute, guk lanean jarraituko dugu berdin.

TXOKOLATE ETA TORTILLA SOLIDARIOAK

Parrokiako Misisio Taldeak antolatuta, otsailaren 17an (Inauteri jaia) txokolate beroa eskainiko da plazan arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Bertan batutako dirua Haitin eskola bat eraikitzeko proiekturako izango da.

Bestalde, otsailaren 27an tortilla-afari solidarioa egingo da Bidaurretan. Bertan batuko den dirua ere Haitiko proiektura bideratuko da.

TELEFONO MUGIKORRAK

'ALBOAN' gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean telefono mugikorrak batzeko kanpaina jarri du abian Hermansoloñak Oñatin. Taldearen lokalean (Bidebarrieta 22), kiroldegian, kultur etxean, Pake Lekun, Lagun Lekun, eta MU-Enpresagintzako kafeterian utz daitezke telefonoak.

Orain dela hamalau urte hasi zineten lanean. Zerk bultzatzen zaituzte jarraitzera?

Beharra dagoela ikusteak eta gure lana apreziatzen dela jakiteak. Gu txikiak gara, eta ez dugu mundua konponduko, baina Argentinan, adibidez, gu lanean ari garen lekuetan, oso inportantea da Oñatiko herria eta bertako laguntza.

Gure lana ez da oso zaila eta, gainera, umore onez egiten dugu; beraz, Oñatiko herritarrek, Udalak eta enpresek laguntzen diguten bitartean, lanean jarraituko dugu. ■



TABERNA • JATEKETA
Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI



FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

BISOI EUROPARRA desagertzeko arriskuan

► Bisoi amerikarra espezie inbaditzailea da bere etsai nagusia eta honi aurre egiteko helburuz sortu den 'Life Lutreola' proiektua azalduko dute Ingurumen Astearen. ► Oñatin ere harrapatu dituzte bost bisoi amerikar

Desagertzeko arriskuan dagoen bisoi europarra (*Mustela lutreola*) babestu eta kontserbatzeko helburuz Europako Batzordeak abian jarri duen LIFE LUTREOLA proiektua izango da Natur Eskolak antolatu duen Ingurumen Jardunaldietako gai nagusietako bat.

Bisoi europarra kontinente osoan hedatua zegoen orain dela ehun urte, baina gaur egun egoera kritikoan aurkitzen da, eremu txiki batzuetan sakabanatuta. Danubio ibaiaren deltan (Ukrainia eta Errumania) eta Ebro ibaiaren arroan (Araba, Nafarroa, Errioxa, Zaragoza...) bakarrik aurki daiteke. Errusia eta Frantzia ere gelditzen omen da nukleo sakabanatu batzuetan.

Gaur egun Europan desagertzeko arrisku handiena duen haragijalea da. Horregatik, Europako Batzordeak bultzatuta, 'LIFE' eta 'NATURA 2000' programen babesean, 'Life Lutreola' (2014-2018) egitasmoa jarri dute abian, bisoi europarraren desagertpenaren aurka borrokatzeko.

BISOI AMERIKARRAREN INBASIOA

Bisoi europarrak bizi duen egoera kritikoaren atzean arrazoi edo kausa ugari daude (habitak galerak, ur kutsatuak, gaixotasunak, ibilgailuen harrapaketak...) baina guztien artean bisoi amerikarra (*Neovison visón*) da etsairik handiena. Larru-industriaren ondorioz ia Europa osora hedatu da azken hamarkadetan eta espezie inbaditzaile hau da bisoi europarrarentzako mehatxu handiena gaur egun.

Bi espezie hauek lurraldekoiak dira; hau da, ezin dira eremu berean elkarrekin bizi; bietako batek alde egin behar izaten du. Bisoi amerikarra handiagoa eta oldar-korragoa da eta, gainera, ugaltze-tasa



BISOI AMERIKARRARENTZAKO TRANPAK

Goikoa bezalako tranpak jartzen dituzte erreka inguruetan bisoi amerikarrak harrapatzeko. Oñatin dagoeneko bost harrapatu dituzte. (Argk.: Jorge Gonzalez eta Jon Ugarte).



handiagoa duenez, europarra galtzaile irteten da. Eleutiana izeneko gaitza ere transmititzen omen du bisoi amerikarrak.

Beraz, garbi dago bisoi amerikarraren egoera kontrolatu beharra dagoela, bestela alferrikakoak izango direlako bisoi europarra indartzeko ahaleginak. Horregatik, Life Lutreola proiektuaren helburuetako bat da bisoi amerikarra harrapatzeko teknikak garatzea, eta bisoi europarraren populazioa berrindartzea, habitat egokiak berreskuratuz eta gatibotasunean hazitako bisoiak askatu eta hauen jarraipena eginez.

lido horretan, datozen lau urteetan 2,5 milioi euro inbertituko dituzte (%70



BISOI EUROPARRA '*Mustela lutreola*'

Kolore marroi iluna duen mustelidoa. Orban zuri bana du ahoaren goialdean eta behealdean. Ile motza, gorputz luzanga eta hanka motzak ditu. Kilo erdi eta kilo bat arteko pisua izaten du, eta 45-60 zm.-ko luzeera. Ur ingurune garbietan bizi da, ibaiertzeko sastrakadi trinkoetan. Igeri egiten du eta urpean ere ibiltzen da. Arrainak, ugaztun txikiak, hegaztiak, narrastiak eta intsektuak jaten ditu. Bakartia eta gautarra da; ilunabarrean jarduten du gehien.

Bisoi amerikarra oso antzekoa da, baina beheko ezpaina bakarrik dauka zuria. Europarra baino handitxoagoa eta ilunagoa da.



Bisoi amerikarra eta europarra

Europar Batzordeak finantziatuta) bisoi europarraren populazioa berreskuratzekeo helburuarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere bat egin du Life Lutreola proiektuarekin, eta, besteak beste, Oñatin bertan ere jarri dituzte bisoi amerikarrak harrapatzeko tranpak. Diputazioko teknikariek jakinarazi digutenez bost ale harrapatu dituzte dagoeneko Oñatin.

Horri guztiari buruz eta, konkretuki, gure lurraldean bisoi amerikar inbaditzailearen aurka egiten ari diren lanaren berri emango dute Iñigo Mendiola eta Jorge Gonzalezek otsailaren 24an emango duen hitzaldian, Ingurumen Astearen barruan.

Oñatiko Natur Eskolak antolatzen dituen Ingurumen Jardunaldien barruan aurten bi gai jorratuko ditugu. Bata inguru hurbileko habitat eta espezie mehatxatuei buruzko hitzaldi sortari dagokiona da, eta beste berriz gizakion historia ikuspegi energetikotik eta eredu hau aldatu beharraren hausnarketari buruzko hitzaldiak dira. Guztira **bost hitzaldi**.

Bestalde, zineklubeko lagunekin elkarlanean **bi pelikula** izango dira eta erakusketa bat ere prestatu dugu, Gipuzkoako habitat eta espezie mehatxatuen inguruan, kasu honetan galzorian dagoen bisoi europarraren gaian sakonduz. Eta nola ez, **zuhaitz ferixia** eta **zuhaitz eguna** ere jardunaldi hauen osagarri izango dira. Ekintza guzti hauetara etortzeko ez dago gaian aditua izan beharrik, herritar ororentzako prestatutako jardunaldiak dira eta guztiontzako daude atean irekita. Anima zaitetze, bertan ikusiko gara!

Bi gai izango dira aztergai: inguru hurbileko habitat eta espezie mehatxatuak, batetik; gizakion historia ikuspegi energetikotik eta eredu hau aldatu beharraren hausnarketa bestetik

■ HITZALDIAK

Kultur Etxeko zine aretoan, 19:00

OTSAILAK 18: 'Gure Ingurumen Mehatxatua; zeintzuk dira gure panda hartzak?' Hizlaria: Kiko Alvarez, Biologian Doktorea.

OTSAILAK 24: 'Bisoi europarra galzorian; Gipuzkoako LIFE proiektua'. Hizlariak: Iñigo Mendiola, Foru Aldundiko Basanimalien eta Basalاندareen Zerbitzuko burua. Jorge Gonzalez, Biologian Doktorea, LIFE LUTREOLAKO teknikaria.

OTSAILAK 25: 'Giza historia ikuspegi energetikotik' Hizlaria: Aimar Uribealgo, Oñatiko Natur Eskolako hezitzailea.

OTSAILAK 27: 'Biomímesis. La única vía para la sostenibilidad' Hizlaria: Roberto Bermejo, ekonomia jasangarriaren irakasle katedraduna

MARTXOAK 3: 'Aingira espezie mehatxatua eta angulak arrandegian; nola liteke?' Hizlaria: Estibaliz Díaz, Biologian Doktorea, AZTI-Teknialiako ikerlaria.

MARTXOAK 4: 'Iraunkortasunerako, Trantsizioa', Hizlaria: Iñaki Antigüedad, Hidrogeologian Katedraduna.

■ ERAKUSKETA

OTSAILAK 18-MARTXOAK 1

Kultur etxean, egunero 18:00-20:00

'INGURUMEN MEHATXATUA; GURE BISOIA GALZORIAN'.



Bisoi amerkarra, europarraren etsai nagusia (Arg.: Jorge Gonzalez)

■ PELIKULAK

Zine Klubaren barruan, 20:00

OTSAILAK 19: 'WildMed; el último bosque mediterráneo'. Zuz: Arturo Menor.

OTSAILAK 26: 'La Sal de la Tierra'. Zuz: Wim Wenders eta Juliao Ribeiro Salgado.

■ ZUHAITZ FERIXIA

MARTXOAK 7, LARUNBATA

Herriko plazan goizeko 9etatik aurrera. Mintegi desberdinetako salmenta-postuak egongo dira: zuhaitzak, fruta-arbolak, landareak...



■ ZUHAITZ EGUNA

MARTXOAK 8, IGANDEA

Goizeko 10etan herriko plazan. Herriguneko parkeetan zuhaitz-landaketa egingo da.

MARTXOAK 15, IGANDEA

Goizeko 9:30ean Unaimendin. Aloñako Lagunak taldearekin zuhaitz-landaketa egingo da Duru-Aloña bitartean.

www.natureskola.eu

Oñatiko Natur Eskolak bere lanaren zabalpena egiteko ataria estreinatu du berriki www.natureskola.eu helbidean. Bertako instalazioak eta baliabideak erakusteaz gain, hezkuntza arloan (maila ezberdinetan) nahiz herritarrei begira antolatzen dituzten ekintzen berri ematen da bertan.



Izena: Carmelo Perez

Bitartekaria eta agente inmobiliarioa

Zer da bizikleta zuretzat?

Eguneroko bizitzarako garraio-bide ekologikoa eta eraginkorra.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Bizitzeko era lasaiago bat nahi dudalako erabiltzen dut bizikleta, herri barruko desplazamendu guztietarako: lanera joateko, erosketak egiteko, alaba txikia eskolara eramateko...

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Ekologikoa eta eraginkorra da; azkarragoa, arinagoa, erosoagoa... Osasuntsu mantentzeko ere ona da. Oñati bezalako herri txiki eta lau baterako oso egokia da.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Bidegorria edo bizikletentzako bidea marraztuko nuke batez ere herriko erdigunean, oinezkoen eta bizikletazaleen arteko elkarbizitza hobetzeko. Beharrezkoa da baita ere txirinduzaleek oinezkoak errespetatzen ikastea.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gero eta hobeto.. Herrigunea eta aisialdi guneak (Usako, Azkoagain, San Martin...) ondo lotzen badiugu, gero eta gazte gehiagok erabiliko dute, eta hor dago etorkizuna.

Txirrinka 2015

Bazkide kanpaina abian da

Urtarrilak 24an plazan izan ginen 2015 BAZKIDE KANPAINA zabaltzen. Bertan bazkide egiteko aukera izan zen eta honekin batera kamisetak, reflektanteak, etab. izan genituen salgai. Pasa den urtean egindako ekintza desberdinen irudiak ikusteko aukera ere egon zen kafe edo salda bero bat hartu bitartean.

Bertaratzerik izan ez zenutenok eta bazkide egitea nahi duzenok, txirrinka@gmail.com helbidera idatzi dezakezue eta bestela hileko lehen asteartetan Zubikoa kiroldegian egiten dugun bilerara etorri.

Pasa den urtean bazkide izan eta aurten berriztu nahi dutenek berriz, nahikoa dute beraien izenean 10€ Txirrinkaren kontu korrontean sartzea: 3035 0005 33 0050069509 (kutxabank).



Txirrinka

Bazkide kanpaina abian du Txirrinka taldeak.

Merkatua

Mango adimenduak SmrtGRIPS



Bizikletan jartzeko mango mol-dagarri hauek, smartphone batetara konektatzen dira. Mugikorrek dituen aplikazio ezberdinak baliatzen ditu dardar egiteko, eta txirindulariari nora joan behar den azaltzeko. Boréal Bikes enpresa Kanadiarren asmakuntza da.

Bideoa:
<http://youtu.be/UVzf1p09Cpw>

Prezioa:
59€-tik aurrera

caravanas Oñate

• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zubalztia, 25 • Tel.: 943 71 63 60
www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zubalztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kafe, 32. Irukkusketa!



Atutxa-Mugerza iazko txapelkunak eta **Olasagasti-Etxeberria** ariko dira nor baino nor

Ikuskizuna osatuz, **Eizmendi** eta **Etxeberria** harrijasotzen ariko dira

Eguraldia ona bada **herriko plazan** egingo da jaialdia; bestela, kiroldegiko **pilotalekuan (12:00)**



BINAKAKO URREZKO AIZKORA txapelketako finalerdi bat Oñatin jokatu da otsailaren 15ean

Herri kirol ikuskizun bikainaz gozatzeko aukera izango dugu aurten ere oñatiarrok, Binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdietako bat jokatu baita Oñatin hilaren 15ean. Eguraldia ona bada, Foruen enparantzan jokatu da, eta bestela Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan, goizeko 12:00etan hasita. Sarrera doan.

Goi mailako ikuskizuna izango da, punta puntako aizkolariek ariko baitira lehia. Alde batetik, iazko Urrezko Aizkora txapelketako irabazleak (Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza). Gogoratu, Atutxa II.a Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa ere irabazi zuela iazko urrian.

Bestetik, aurkezpenik behar ez duen Jose Mari Olasagasti Igeldoko aizkolari handia eta Felix Etxeberria ariko dira, final nagusirako txartel baten bila.

SEI MODALITATE EZBERDIN

Urrezko Aizkora txapelketa oso ikusgarria eta dinamikoa izaten da. Aizkolariek 24 enbor moztu behar dituzte, baina sei modalitate ezberdinetan: zeinek kolpe gutxiagotan, erlojuaren kontra, enborra zutik, etzanda... Proba bakoitzean lortutako puntuen batuketak erabakitzen du irabazlea. Gainera, aizkolariei atseden pittin bat eman eta ikuskizuna borobiltzeko, Jokin Eizmendi (E.H.-ko txapelketa) eta Idoia Etxeberria harrijasotzaileek egingo dute erakustaldia.

Oñatiko Herri Kirol Taldearen ekimenez iritsiko da Urrezko Aizkora txapelketa Oñatira, Udalaren eta honako etxe hauen laguntzarekin: Mekalki, Batuak, Gelatzu, Madalena gasolindegia, Gereta ardoak, Soraluze hotela, Garibai aroztegia, Erle garajea, Ulma fundazioa, Amets eta Opel Berezaio tailerrak, eta Markiegi upategia.

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia
Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

Oñatin Oñatiarren zorhitzeak!

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40



MENDI IRTEERAK

2015eko irteeren egutegia prest du Aloña Mendik

EGUTEGIA

MENDI IRTEERAK

- **URTARRILAK 18**
Olabartako bira
 - **OTSAILAK 15**
Izki: Apellaniz-Obecuri
 - **MARTXOAK 15**
Ollo harana
 - **APIRILAK 19**
Bera-Larrun-Sara
 - **MAIATZAK 17**
Aralar
 - **EKAINAK 21**
Castro Valnera
 - **UZTAILAK 18-19**
Otsogorrigana-Auñamendi
 - **IRAILAK 12-13**
Posets
 - **URRIAK 18**
Uraren ibilbidea (Oñati)
 - **AZAROAK 15**
Antigua-Izaspe-Samiño
 - **ABENDUAK 20**
GR123 Ondarru-Lekeitio
- #### ESKI TRABESIAK
- **OTSAILAK 14-15**
Zuriza-Linza inguruan
 - **MARTXOAK 14-15**
Erabakitzeke nora

Aloña Mendiko 'Mendi' sailak urtean zehar antolatzen dituen jarduera ezberdinen artean mendi irteerak daude. Aurten ere, ohiturari eutsiz, hilero ibilaldi bana antolatuko du, ondoko taulan ikus daitekeen eran.

Aurtengo lehen mendi-ibilia Oñatin bertan izan zen, 'Olabartako bira', auzoko elkartearen egindako bazkariarekin borobilduta. Otsailekoa Araba aldean egingo dute, Izkiko natur parkearen barrena. Horik aurrera, herrialde bakoitzean bat, gutxi gora behera: Ollo harana (Nafarroa), Larrun (Lapurdi), Aralar (Gipuzkoa-Nafarroa), Castro Valnera (Burgos), Izaspe (Gipuzkoa), eta Ondarru-Lekeitio (Bizkaia). Oñatin bertan ere egingo da ibilaldi bat ('Uren bidea') urrian, eta urtero bezala, Piriniotara ere asteburuko bi irteera egingo dira, uda partean, elurrik ez dagoen garaian.

ZAILTASUN TEKNIKO BARIK

Normalean 5-6 ordutan egiteko moduko ibilaldiak izaten dira, zailtasun teknikorik gabe. Piriniotako irteeretan, Posets (3.371 m.) eta Auñamendi (2.504 m.) altuera gerta daiteke oztopo batzuentzat, baina, gainerakoan, zailtasun teknikorik ez duten ibilbideak izaten dira, mendian ibiltzeko ohitura duen edozein mendizalek egiteko modukoak.

Irteera bakoitzean 20-30 lagunek parte hartzen dute, eta taldean egiten da ibilaldia. Beste ezeren gainera, segurtasuna zaintzea izaten da antolatzaileen ardura nagusia. Horregatik, antolatzaileek aurretik egina izaten dute ibilbide hori berori, eta irteera egunean

bertan GPSa eramaten dute eta, badaezpada, bide alternatiboak ere prest izaten dituzte, batez ere Piriniotako irteeretan.

Ariketa fisikoa egin eta naturaz gozatzeaz gain, Euskal Herriko eta inguruetako txoko eta paisai ederrak ezagutzeko aukera bikaina ematen dute mendi ibilaldiek. Gainera, autobusez joateak, ibilaldia leku batean hasi eta beste batean bukatzeko aukera ematen du, eta horri esker, mendiaren isurialde ezberdinak ikusi eta ezagutzeko aukera egoten da.

Esan beharrik ere ez dago, bestalde, jende berria ezagutu eta lagunartea zabaltzeko bidea ere eskaintzen dutela mendi irteera hauek.

Aurrerantzean derrigorrezkoa izango da mendian federatuta egotea Aloña Mendiren irteeretan parte hartzeko

FEDERATUTA EGOTEA DERRIGORREZKOA

Aurten bada aldaketa inportante bat Aloña Mendik antolatzen dituen mendi irteeretan, izan ere, aurrerantzean derrigorrezkoa izango baita mendian federatuta egotea ibilaldi hauetan parte hartzeko.

Mendi-federatu txartelak hainbat abantaila (deskontuak aterpetxeetan...) ematen dizkio mendizaleari, baina, batez ere, mendi-istripu eta erreskateak estaltzen dituen aseguru daukalako da inportantea. Horregatik, Gipuzkoako Mendi federazioaren aholkuari jarraituz, aurrerantzean federatuta egon beharko da Aloña Mendiren irteeretan parte hartu ahal izateko. Praktikan ez du aldaketa handirik ekarriko; gaur egun, 860 bat bazkide ditu Aloña Mendiko Mendi sailak, eta hauetatik 850 daude federatuta.

→ OTSAILEKO IRTEERAK ALOÑA MENDIREKIN

■ MENDI IRTEERA / OTSAILAK 15

IZKI PARKE NATURALA

Apellaniz-San Cristobal (1057m.)-Obekuri

Otsaileko irteera Arabako IZKI natur parkera antolatu du Aloña Mendik. Apellanizetik abiatuko dira, Arluzea eta Markinezetik pasata, Obekuriraino iristeko. Bidean San Cristóbal gaina (1057m.) ere hartuko dute. Irteerak ez du zailtasunik, baina luzea da (21 km.) 6 ordu inguruan egiteko. Desnibela, 700m. inguru. Gogoratu, federatuta egon behar dela parte hartzeko.



Irteera: goizeko 7etan Korreosen

Izen-ematea: urtarrilaren 12ra arte

Prezioa: Bazkideak 10€ / Ez-bazkideak 13€ / Langabeak 5€

MENDI-ESKI IRTEERAK

Ohiturari jarraituz, aurten ere bi mendi-eski irteera antolatuko ditu Aloña Mendik. Aurrenekoa hil honetan bertan (otsailak 7-8) izango da, Panticosa eta Astun inguruetan. Larunbatean Batanes-eko bira egingo dute (+1.100m./18km.), eta igandean Portalet-Pico Canal Roya-Pico Moneko lepoa-Astun zeharkaldia (+1.000m./12km.). Irteeran parte hartzeko derrigorrezkoa da federatuta egotea eta frantziar piriniotako estaldura edukitzea. Prezioa: 55€ (Ez-bazkideak 65€). Izen-ematea otsailaren 3an ixten zen. Informazioa: 699063282 / 6857211437)

Normalean, urteko lehenengo irteera hau errazagoa izaten da, hasiberrientzat eta teknika landu nahi dutenentzat egokia. Bigarren irteera martxoan izango da (zehaztu gabe dago oraindik nora). Bigarren travesia teknikoagoa izango da.



Aloña Mendi azpitxapeldun Euskadiko kros motzean

Espainiako txapelketan izango da laugarren urtez jarraian



Aloña Mendiko Atletismo taldea bigarren sailkatu zen otsailaren lein Azpeitian jokaturako Euskadiko kros motzeko txapelketan, maila absolutoan. Alberto Revuelta (6.), Yeray Varela (8.), Imanol Cruz (11.), SErgio Garcia (12.) eta Mikel Ugarte (28.) izan ziren gure ordezkari onenak.

Horrenbestez, Aloña Mendi Espainiako txapelketan parte hartzeko sailkatu da, laugarren urtez jarraian. Martxoaren lein jokaturako da estatu mailako txapelketa Caceresen. Aurretik, hilaren 15ean, distantzia luzeko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, berriz ere Espainiako txapelketarako txartela eskuratzeko helburuarekin, bai senior mailan eta baita kadetetan ere.



RAMON VARELA EUSKADIKO AZPITXAPELDUN BETERANOETAN

Beteranoen txapelketa ere jokatu zen Azpeitian, eta kasu honetan Ramon Varela garaipena lortzeki oso gertu egon zen, baina akats txiki baten ondorioz zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuen V55+ mailan.

Miren Josune Bikuña hirugarren Kirolprobak ligan

Abixaran taldeko Miren Josune Bikuña hirugarren sailkatu da 2014ko Kirolprobak herri lasterketen ligan, senior mailan. Kirolprobak ligan 55 lasterketa puntuagarri daude urtean zehar, eta gehienez 12 probatan lortutako puntuen arabera osatzen da sailkapena. Miren Josunek 1498 puntu lortu zituen 2014an, bigarren sailkatu den Izaro Rubiorenandik puntu batera. Irabazlea Claudia Beobide izan da 1710 punturekin.



Estela Biain Idiazabalgo podiumean

Estela Biain korrikalari oñatiarra hirugarren sailkatu zen urtarrilaren 25ean jokatu zen Idiazabalgo XXXV. Herri Krosean. Estelak 41:53an osatu zuen 10,2 kilometroko ibilbidea. Bestalde, astebete lehenago Arabako taldekako kros txapelketa irabazi zuen Estelak, Gasteizko La Blanca taldearekin.

Aloñako Igoerarako izen-ematea zabalik

Zabalik dago jada apirilaren 26an jokaturako den Aloñako Igoerarako izen-ematea. Iaz estreinatutako ibilbide bera (22,6 km. eta 2020 m.-ko desnibel positiboa.) izango du lasterketak aurten ere. Gehienez 300 korrikalarik parte hartu ahal izango dute. Izen-ematea www.sailkapenak.com webgunean egin behar da. Lasterketari buruzko informazioa <http://aloinakoigoera.wix.com> helbidean aurki daiteke.



Loreak filmeko lantaldea, Aitor Arregi oñatiarra tartean dela

'LOREAK'

film onenaren Goya sarirako hautagai

Loreak filma mugarririk jartzen ari da euskal zinemagintzan. Euskara hutsez egindako lehen filma izan da Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean, eta orain Goya sarietarako bi izendapen jaso ditu: soinu banda eta film onenarenak. Bidean beste hainbat sari ere jaso ditu. Zaila izango da Goya saria irabaztea, maila eta marketin aldetik indar handia duten pelikulekin (*El Niño*, *La isla mínima*, *Relatos salvajes* eta *Magical Girl*) lehiatuko baita, baina izendapena bera sari handia da jada. Halaxe aitortu digu Aitor Arregi 'Loreak' filmeko ko-gidoilari eta ekoizleak. Gelditu barik dabil azkenaldian filma promozionatzen eta sariak jasotzen, baina tartetxo bat hartu du gurekin hitz egiteko.

Larunbatean (otsailak 7) ospatuko da Goya sarien gala. Urduri?

Urduri ez. Ilusio handiarekin bai. Izendatuta egotea bera sari handia da. Pelikula onenarena, bereziki, izendapen kolektiboa da, lantalde osoa batzen duena, eta zentzu horretan oso polita da. Beraz, horrelakoetan esaten den moduan, gutxi galtzeko eta dena irabazteko.

Oso oso zaila izango da saria irabaztea. Aurten, bereziki, esango nuke maila oso ona dagoela. Marketin aldetik indar handia duten pelikulak dira. Beraz, ilusio berezirik ez dugu egiten, baina disfrutatuta egin nahi dugu han egoteak suposatzen duenaz.

Nazioarteko zine jaialdi ezberdinetan

(Donostia, London, Zurich, Tokio...) egon da dagoeneko 'Loreak' filma, baina Goya sariak bereziak dira, ezta?

Bai, inpaktu mediatico handia dute, eta egia da, mapan kokatzen zaituela, argi eta garbi. Donostiako zinemaldiko sail ofizialean egoteak fokoa jartzen dizu zure gainean, eta Goya sarietan egotea beste urrats bat da ildo horretan. Ezagutzera ematen zaitu. Zaila da jakitea edo neurtzea horrek ze erreperkusio izan dezakeen etorkizunean, baina garbi dago Goya sarietan egoteak laguntzen duela.

Askoren ustez 'Loreak' da aurtengo Goya sarietako ustekabea. Espero zenuten izendapena?

Espero genuen nominazioen bat

jasotzea beste kategoriatzat (aktore-aktoriesak, zuzendariak...) baina ez pelikula onenarena. Gainera, ez da oso ohikoa film onenaren sarirako hautagaien artean egonda izendapen gehiago ez jasotzea. Badugu pena pittin bat aktoreen bat izendatu ez dutelako, baina pozik gaude hala ere.

Zer azpimarratu du epaimahaiak izendapena egiteko orduan?

Ez dute azalpenik ematen; 1.000tik gora akademikok egindako bozketatik ateratzen dira izendapenak. Egia esan, Donostian estrenatu zenetik kritika onak jaso ditu eta bagenekien kiniela batzuetan agertzen zela. Sentiberatasuna, emozioak, narrazioa... azpimarratu dituzte adituek. Nik uste dut pelikula orekatua dela, neurtua, eta maila polita daukala arlo guztietan.

Film onenaren saria irabaziz gero zeu igoko zara saria jasotzera, ezta? Mezu bereziren bat emango al zenuke?

Pelikula onenaren saria izanik, ekoizleoi dagokigu saria jasotzera igotzea, baina gertatuko balitz, uste dut protokoloa hautsiko genukeela.

Egia esan, ez naiz pentsatzen jarri zer esango nukeen, oso oso aukera gutxi



Aurtengo Goya sarietako nominatuen festa egin zuten urtarrilaren 19an Madrilgo Teatros del Canal aretoan. Goya sariei hasiera ematen dion ekitaldia izaten da. Bertan izan zen Aitor Arregi zinegile oñatiarra.

dugulako, baina ez nintzateke larregi konplikatu. Ez dut uste aldarrikapenak egiteko foroa denik (hori ere errespetatzen dudan arren). Uste dut eskerrak emateko unea dela batez ere. Kritikak edo erreibindikazioak egiteko badaude beste foro batzuk.

'Loreak'ek 50.000 ikusle pasatxo izan ditu dagoeneko. Kopuru ona al da?

Bai, ondo dago. Azken hamar urteotako euskarazko pelikularik ikusienak 'Aupa Etxebeste' (75.000 ikusle) eta 'Kutxidazu bidea Isabel' (50.000) dira. 'Lasa eta Zabala' euskaraz eta gazteleraz da, eta 70.000 ikusleren bueltan dabil. Hortik behera, 'Urte berri on amona!' (30.000) eta '80 egunean' (25.000) daude.

Beraz, datu ona da. Gipuzkoan, esaterako, urteko bosgarren pelikularik ikusiena izan da, eta bada zer bait, gure aretoetara iristen diren superproduktzio guztiekin. Ondo funtzionatu du. Jakina, ez dago konparatzerik 'El niño' (3 milioi ikusle) eta 'La isla mínima' (milioi bat) pelikulekin. Hauen merkatua askoz zabalagoa da, eta marketin aldetik indar handia dute.

Ikusle kopuru horrekin nola orekatzen da aurrekontua?

Inola ere ez. Ikusle kopurua ona izanik ere, pelikularen aurrekontuaren %5era iritsiko gara, gutxi gora behera. Egin kontu, sarreran ordaintzen duzunaren erdia lokalaren jabearentzat dela, eta

SARIAK Donostia, Zurich, London, Tokyo, Latin Beat (Japonia) Cartagena (Kolonbia) eta Palm Springs-eko (California) zine jaialdietan parte hartu du 'Loreak' filmak, eta hainbat sari eta izendapen jaso ditu

%30 banatzailearentzat. Beraz, ekoizlearentzat oso gutxi geratzen da.

Guk oso garbi dugu pelikula bat egin behar dugunean ezin dugula takillari begira egon, gure merkatua oso mugatua baita. Zenbat eta ikusle gehiago hobe, noski, baina finantziario publikoa (Eusko Jaurlaritza, ETB...) ezinbestekoa da eta enpresa pribaturen bat lortzen badugu (gure kasuan Euskaltel sartu da), hobe.

Azken batean, subentziora baino gehiago inbertitzeko modu bat da, demostratuta baitago inbertitzen den euro bakoitzeko lau datozela bueltan (errodajeen sortzen diren gastuak, lanpostuak, fiskalitatea...).

Ze ibilbide edo bizitza du 'Loreak' bezalako pelikula batek?

Dagoeneko 12 aste egin ditu (Hurrengo orrira)

Duela 150 urte Altzon bizi izan zen erraldoiaren inguruan fikziozko luzemetrai bat egitea da buruan daukadan hurrengo proiektua



Lekeitioko Zine Bilerako sari nagusia jaso du Aitorrek. Gaur egun irakasle lanetan ere badihardu MU-ko ikus-entzunezkoen fakultatean.



(Arg.: Bostok Photo)

'Zarautzen erosi zuen' laburrak zortzi sari jaso ditu

Azken urtea borobila izan da Aitor Arregirentzat. 'Loreak' filmarekin lortu duten arrakastaz gain, Aitorrek berak zuzendutako 'Zarautzen erosi zuen' laburmetraia Donostiako Zinemaldiko Zabaltegi sailerako aukeratua izan zen eta Eusko Jaurlaritzaren 'Kimuak' euskarazko film labur onenen 2014ko katalogoan ere sartu zuten. Orduz geroztik zazpi sari jaso ditu Bilbo, Lekeitio eta Errenteriako zinemaldietan, besteak beste. Gainera, egunotan, munduko laburmetrai jaialdi inportanteenetakoa den *Clermont Ferrand* zinemaldian parte hartzen ari da. Zurrumbilo hau guztia baretu ostean Oñatin aurkezteko asmoa duela azaldu digu Aitorrek.

karteldegian. eta hori asko da. Gaur egun astebururo zazpi pelikula estreinatzen dira, eta, askotan, hiru edo lau aste irautea asko da. Goya saria irabaziz gero, bigarren aukera bat izango luke filmak. Izendapenarekin bakarrik Donostian berriro estreinatu da, eta Madrilen ere beste salaren batean sartu da.

Alde komertzialaz gain, beste bide edo bizitza bat ere badu pelikulak, zine jaialdiena, alegia. London, Zurich, Tokyo, Cartagena eta Palm Springs-en egon gara, dagoeneko, eta orain Guadalajara (Mexiko) joatekotan gara. Sariez gain, hor egoten dira erosleak, banatzaileak... eta oso inportantea da hor muturra sartzea. Bere ibilbidea egingo du gutxienez urtebetez. Frantzia eta Japonen interesatuta daude, baina oraindik lotzeko dago.

Mugarria jartzen ari zarete euskal zinemagintzan.

Mugarri hitza potoloegia iruditzen zait. Egia da, erreferentzia bilakatu dela, euskara hutsean egindako filma bat aurreneko aldiz sartu delako Donostiako sail ofizialean eta Goya sarietako pelikula onenen artean, eta hori inportantea da. Dena den, ikusi egin beharko da atzetik zer datorren, eta horren arabera esango dugu mugarria izan den ala ez. Hori perspektiba batekin ikusi behar da.

Zein da hurrengo proiektua?

Orain dela 150 urte bizi izan zen Altzoko erraldoiaren (2,42-ko garaiera izan zuen) inguruan egin nahi dugu fikziozko luzemetrai bat. Istorio bitxia da, eta hori garatu nahian ari gara, baina oraingoz aho txikiarekin esaten dut, proiektu zaila delako; polita baina konplikatua.

Gaur egun irakasle laneatan ere badiharduzu Huhezi fakultateko ikus-entzunezko komunikazioan. Nola bateratzen duzu sormen lanarekin?

Zoroen pare ibilita, askotan, eta, batez ere, etxeko eta familiako pazientzia eta laguntzari esker. Bestalde, arlo baten eta bestearen arteko zubiak eraikitzen saiatzen naiz, batean landutakoa bestean aplikatu ahal izateko.

REYES PRADOSekin BERBETAN



ETBko aurkezlea euskaltegian izango da otsailaren 12an, osteguna, 18:00etan

Euskalduntzen izan duen esperientzia kontatzera etorriko da euskaltegira. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Reyes Prados Sevillan jaio eta hazitako kazetaria duela zortzi urte etorri zen Euskal Herrira ETBn lan egitera, eta 'Euskadi

Directo' programaren bitartez egin zen ezagun gure artean. Orain dela bi urte, berriz, euskara ikasten hasi zen eta urtebeteko epe laburrean, lana senper eginez, bere burua euskalduntzea lortu du.

Horregatik, aurtengo kurtsoan euskaldun moduan agertu zaigu komunikabideetan, lehenengo HABEren ikasturte hasierako propaganda-kampainako bideoan, Anne Igartur buru Elorrioko kazetariarekin batera eta, gero, Goenkalen ere. Horrela aurpegi ezaguna egin da euskaldunen artean.

Bada, euskalduntzen izan duen esperientzia kontatzera etorriko da euskaltegira, bere arrakastaren gakoak ezagutuko ditugu zuzen-zuzenean berak kontatuta eta ondoren entzule guztien galderei erantzungo die.

Herritar guztiak zaudete gonbidatuta, bereziki, bera bezala helduaroan euskaldundu zarenak, kanpoan edo bertan jaiok izan.

ZUBEROAKO MASKARADETARAKO IRTEERA EUSKALTEGIAREN ESKUTIK - MARTXOAK 14



Azken urteetako ohiturari eutsiz, aurtur ere Zuberoko Maskarada bertatik bertara ikusteko txangoa antolatu du Udal Euskaltegiak. Zehazki, martxoaren 14an, larunbata, egingo dute irteera, Maule-Lextarrera (Zuberoko hiriburua). Goizeko 8etan irtengo da autobusa Oñatitik, eta gaueko 10ak aldera iritsiko bueltan. Prezioa, 12€ (Ikasle eta langabetuek 8€). Txartelak salgai martxoaren 9ra arte, Txokolateixan eta Euskaltegian.

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
S.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 39 - lin.obarsari@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale berrin 8 - 20560 ubial
www.sanmiguel.coop

UDAL LIBURUTEGIA - OTSAILA

Felix Albo

IPUIN KONTAKETA HELDUENTZAT**OTSAILAK 10, ASTEARTEA, 19:00ETAN, LIBURUTEGIAN.**

Felix Albo Alakanteko ipuin kontalaria etorriko da udal liburutegira 'Faros' izeneko ikuskizunarekin, Mediterraneo aldeko istorioak kontatzera. Albok bere ahotsa eta adierazkortasuna erabiltzen ditu entzulea seduzitzeko, eta beti lortzen du, irriparra eraginez, gainera. Bere istorioen bidez, nostalgiaren eta itxaropenaren ibilbide zabaletan barrena paseatzera eramango gaitu, baina, tarteka, ironia, sarkasmoa eta errebeldiaren bide estuetara ere eramango gaitu.

OSTEGUN KONTALARIAK (3-6 urteko haurrentzat)**OTSAILAK 26, OSTEGUNA, 18:00ETAN, HAUR LIBURUTEGIAN.**

Lur Usabiaga ipuin kontalariaren eskutik 3-6 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa. Gonbidapenak eskuratu beharko dira aurreko astean zehar haurren liburutegian.

**TERTULIXAN-IRAKURLE TALDEAK**

Euskarazko irakule taldean Garbiñe Ubedaren 'Hobe isilik' eleberria aztertuko dute otsailaren 11n, asteazkena, 18:30etan. Gaztelerazko taldean Jiro Toniguchiren 'Barrio lejano' komikia izango dute hizpide otsailaren 24an (18:30), eta 'Ni hiltzaile' lanari esker Frantziako Kritikaren ACBD sari prestigiotsua jaso berri duen Antonio Altarririk gidatuko du saioa.



Antonio Altarriba

OÑATIKO INAUTERIA

240 lagunek girotuko dute herria otsailaren 14an



Otsailaren 14a izango da inauterietako festa egun nagusia Oñatin, 240 bat neska-mutil irtengo baitira kalez kale inauterriak ospatzera Oñatiko erara, bertako pertsonaia, dantza, kantu eta erropekin. Goizeko 11:30etan abiatuko dira Olakuatik, eta egun osoan ibiliko dira kalez kale. Iluntzeko 20:00etan izango da amaiera ekitaldia foruen enparantzan.

Bestalde, otsailaren 15ean, igandea, Oñatz dantza taldekoek Luzaideko dantzen kalejira egingo dute 18:30etan, Aita Madina taldeko txistulariak eta musika eskolako akordeoi taldeko ikasleak lagun dituztela.

INAUTERIAK IKASTETXEETAN

Txantxiku ikastolakoek otsailaren 13an ospatuko dute inauterri festa. Haur Hezkuntzako haurrak txakur, untxi, oilo, ardi eta katu mozorrotuko dira, eta Lehen Hezkuntzakoak pirata.

Elkar Hezi ikastetxeok berriz hilaren 17an ospatuko dute jaia, Far West giroko mozorroak jantzita. Kalejira egingo dute 10:30etan herriko kaleetan zehar.

Musika eskolako ikasleak Andoaingo Piano Jaialdian

José de Azpiazu musika eskolako 9 ikasleak (Izar Diaz, Anje Maiztegi, Naroa Martirena, Unai Pedrosa, Ana Belen Ferrero, Marta Igarzabal, Unai Agirre, Asier Berreteaga eta Sara Mantxola) andoaingo Piano Jaialdi entzutetsuaren X. edizioan parte hartuko dute otsailaren 28an eta martxoaren 1ean. Argazkiak daude denak, Ainhoa Galdos eta Araceli Guridi irakasleekin.

**'EMUSIK-2016'-ko abestia aurkeztu dute**

'Donostia 2016 - Europako Kultura Hiriburua' egitasmoaren barruan datorren urteko maiatzean ospatuko den EMUSIK jaialdiko abesti ofiziala eta bideoklipa aurkeztu dituzte (ikusi <http://youtu.be/6Usq1kGv5kg>). Gogoratu, EMUSIK jaialdiak Europako 10.000 musikari bilduko dituela Donostian, eta hainbat musika saio izango direla herrialde osoan, baita Oñatin ere.

Hitzaldia eta inauterriak Pake Lekun

Pake Leku erretiratuen elkartearen giza baloreen inguruko hitzaldia egongo da otsailaren 10ean, 17:30etan. 'Los valores de las personas mayores' da izenburua, eta Josean Larrañaga erretoreak emango du.

Bestalde, hilaren 12an Ostegun Lodia ospatuko dute. Bingo berezia egingo dute 17:30etan, eta ondoren dantzaldia eta abestiak. Hilaren 17an, Tolosara joango dira hango inauterri festaz gozatzera.

OTSAILEKO AGENDA

■ KONTZERTUAK GAZTELEKUAN



otsailak 6 ZEA MAYS

Zea Mays Bilboko laukoteak -Aiora Renteria (ahotsa), Piti Imaz (kitarra), Ruben Gonzalez (baxua) eta Asier Basabe (bateria)- 'DA' izeneko bere azken diskoa aurkeztuko du Gaztelekuan (23:00). Sarrera: 8€ (aldez aurretik 6€ Boga eta Pako tabernetan).

RAY FERNANDEZ

otsailak 28 kuba eta bizipoza

Raimundo Fernandez kubatarrek Gaztelekuan joko du otsailaren 28an. Euskal Herrian ematen duen lehen kontzertua izango da. Trobadoretzat du bere burua Fernandezek; abeslari eta poeta aldeberean, kantagintza kubatar zaharra eta berria batzen ditu. Gitarra eskuan, errealitateari buruz hausnartzera eta ondo pasatzera gonbidatzen gaitu Rayk. Sarrera, 5€.



otsailak 8 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'Kabezafuego y Los Brutaes'



Iñigo Cabeza Fuego saltsa guztietan dabilen Iruñeko musikaria da. Basque Country Pharaons, Royal Canal, Bizardunak, Atom Rhumba eta beste talde batzuetan ibilia, azken bizpahiru urteotan bakarka ari da, bere kantu propioak sortzen. Hala, 'Camina conmigo' diskoa kaleratu du, eta orain hirukote formatoan aurkezten dihardu. Rocka, popa, folka, punka... eta umorea barra-barra aurkituko dugu bere zuzeneko emanaldian. [Igandea, 19:30.](#)

otsailak 15 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'JOXERAMONES'

Inauteriak direla eta, otsailaren 15ean izugarriko kontzertua egongo da Pakonian. Lau musikari oñatiarrek Ramones taldearen abestiz osatutako kontzertu potentea eskainiko dute. Inauteriak direla eta, mozzorrotuta edo osagarriren batekin joateko gonbitea egiten zaie herritarrei. Eta, noski, jairako eta ondo pasatzeko gogoz. [Igandea, 19:30.](#)



Inauterietako kontzertua. Ramones-en bertsioak, lau musikari oñatiarren eskutik

ANE MERTZERIA

- Joateko zerak
- Lentzeria
- Umeeen jantziak

Kale Berrin, 54 DNATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANTZERKIA

ERDIBANA



otsailak 13 Udal Kultura sailak antolatuta, TXALO Produkzioak taldearen lan berria ikusteko aukera izango dugu, algarak aterako dizkigun komedia ederra. Gaixorik dagoen baina hiltzeko gogo gutxi duen ama zaintzen duten bi anai dira Iker eta Alkain. Gauaren erdiko elkarriketetan konta ezin diren sekretuak ateratzen joango dira. **Santa Ana, 22:30. Sarrera: 10€** (www.bibe.me)

MAITASUNAREN OSTEAN MAITASUNA

(*El amor después del amor*)



martxoak 1

Udal Kultura sailak antolatuta 'El amor después del amor' antzezlanaren taularatuko du Ados Teatroak Santa Ana antzokian. Dora Salazar artista plastikoaren iruditeria oinarri hartuta, Garbi Losadak sortutako lana da. Gabik bere oroitzapen eta emozioak gehitzen dizkio Doraren narrazio piktorikoari Hiru ahotsetan planteatutako maitasun istoria, panpin errusiarrak balira bezala kontatua. Aktore lanetan Ane Gabarain, Dorleta Urretabizkaia eta Sara Cozar ikusiko ditugu. **Santa Ana, 22:00. Sarrera: 10€** (www.bibe.me)

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

'BERBEBA ETA ANIMAZIOA' KIKI, KOKO ETA MOKO PILAZOEN ESKUTIK

otsailak 17 Inauteri jaietako egitarauaren barruan, Kiki, Koko eta Moko pilazozen ikuskizuna antolatu du Udal Kultura sailak. Bereziki haurrei zuzendutako ikuskizunea da, dantzak, kantuak, jolasak uztartzen dituen ikuskizun dibertigarri eta partehartzailea. **Zubikoa kiroldegian, 17:00. Doan.**



IKASTAROAK, TAILERRAK, DEIALDIAK...

► Estanpazio tailerra

Udal Kultura sailak antolatuta, Estanpazioaren teknika ikasteko tailerra egingo da otsailaren 26tik maiatzaren 30era. Mirari Sagarzazuk emango du ikastaroa eta bi talde osatuko dira: 6-12 urtekoentzat bat, eta 12 urtetik gorakoentzat (helduak barne) bestea. Bi orduko hamabi saio izango dira, ostegunetan. Helduen ordutegia izen-emate kopuruaren arabera erabakiko da; edo goizez (11:00-13:00), edo arratsaldez (18:30-20:30). Gaztetxoena arratsaldez izango da (17:00-18:30). Interesatuak otsailaren 13a baino lehen eman behar dute izena kultur etxean. Prezioa: 25€.

► Jostintza tailerrak

Botoi bat ondo josi, fraka barrenak hartu, eta, oro har, jostintzaren sekretuak (makinez nahiz eskuz) ikasiko dituzu tailer hauen bidez.

-**Beldurtientzako ikastaroa:** Egokia litzateke nork bere makina ekartzea, baina ez da derrigorrezkoa. 3 eguneko ikastaroa, 2 ordu eguneko, astearte edo ostiraletan, talde txikian. 45€ materiala barne.

-**Jostintza tutoriak:** oinarrizko jostintza lanekin hasi eta gauza zoragarriak egiten ikasteko tailerra. 2 egun, 2 ordu eguneko, astearte edo ostiraletan, talde txikian, 30€. Izena emateko: dor.jostintza@gmail.com / 943533647

► Pellak eta torradak, Lagun Lekun

Ostegun Gizen egunean (otsailak 12) pellak eta torradak dastatzeko aukera egongo da Lagun Leku nagusien elkatean (ETEO zahara). Pellak eta torradak etxean egiteko prest dauden guztiei errezeta eta osagaiak emango zaizkie lokalean. Eman izena Lagun Leku elkartearen bertan.

-**ERAKUSKETA:** Otsailaren 16tik 22ra egurrean landutako lanen erakusketa egongo da Lagun Leku elkartearen.



ADIERAZPEN LIBREKO GUNEA izeneko fanzinea aurkeztu dute

Ez da berria, dagoeneko lau zenbaki kaleratu baitituzte, baina urtarrilaren 21ean aurkeztu zuten Antixena gaztetxean. Gazte talde baten ekimena da. Fanzineak 40 orri inguru ditu eta eduki aldetik, Gaztetxean egiten diren autoformakuntza saioetan jorratutako gaiak eta materiala biltzen dute, eta, horrez gain, aktualitate diren gizarte eta politika gaiak aztertzen dituzte, ikuspegi kritiko batekin. Urtean bi ale ateratzeko asmoa dute; uda atarian bat, eta Gabonak aurtxoan bestea. Hurrengoa ekainean izango da. Gaztetxean eta Arrano tabernan eskura daiteke euro baten truke.

GAZTETXEAN OTSAILEAN

6 KONTZERTUA
FLY SHIT + HARTZAK BLUES BAND
Bergarako hardcore talde mitikoak 'Barneko ahotsaren bila' diska aurkeztuko du. **Otsailak 6, 22:00**

10 KONTZERTUA
JOSEBA IRAZOKI + PUTAN CLUB
Putan Club-a (Francois R. Cambuzat eta Gianna Greco) erresistentzia zelula artistiko ikonoklasta eta gogorra da, eta aldi berean groovy nahiz oso sexia. 700dik gora emanaldi egin dituzte Europa, Afrika eta Asian zehar. Joseba Irazoki beraterra kitarra jole eta musikari aparta da. Umorea eta birtuosismoa barra-barra ditu. Rocka, bluesa, garagea, popa, katxondeoa eta auskalo zenbat sorpresa eskainiko dituen zuzenekoan. **Otsailak 10, asteartea, iluntzean.**



13 KONTZERTUA
ARCADA SOCIAL + KNOCK OUT (Madril)
Arcada Social arrasatearrekin batera, Kncok Out madrildarrak ariko dira gaztetxean. Rock eta oi estiloak lantzen ditu 2013an arotutako talde honek. **Otsailak 13, ostirala, 22:00**

14 KONTZERTUA
BIDELAPURRAK + THE MOCKERS
The Mockers Durangoko roker eroak dira. Zainetan daramatzate desertuko doinuak eta Anbotopeko Mariren oihartzuna. Bidelapurrak bi bandolero dira; hainbat proiektu eta saltsatan ibilitako bi gazte. Oraingo honetan, country eta folk doinuetan murgildu dira. Epikari, euskal apatridei eta horien barne munduari kantatzen diote. **Otsailak 14, zapatua, 22:00. Dohainik.**

20 IRAKURLE TALDEA
'Post-it bizitzak' Iolanda Zuñiga
Iolanda Zúñiga (Vigo, 1975) idazle galiziarren 'Post-it bizitzak' (*Pasazaite*, Iñigo Roquek euskaratua) errelato liburua izango dute berbagai Gaztetxeko Irakurle taldean. **Otsailak 20, ostirala, 18:30**



20 KONTZERTUA
MOBYDICK
MobyDick bakarlarria gitarra eta ahots sendoz taularitzen den musikari bizkaitarra da. Rock talde ezberdinetan ibili eta gero, bakarkako bideari ekin zion, disko bat eta bertsioren disko txiki bat grabatuz. **Otsailak 20, ostirala, 22:00**



24 AUTOFORMAKUNTZA SAIOA
'Euskararen isobarak' Pako Aristi
Euskararen inguruko diskurtsoa kutsatzen duten gezurrak detektatzen saiatu da liburu honetan Pako Aristi: euskara politizatuta dagoela, ez dela modernoa, subentzionatuta dagoela, erakargarritasuna falta zaiola... **Otsailak 24, asteartea, 18:30**

25 EZTABAIDA IREKIA
'Okerra al da Oñatiko gazteen hizkera?'
Oñatiko gazteek darabilten euskararen inguruko hausnarketa saio irekia. **Otsailak 25, asteazkena, 18:30**

27 POESIA EMANALDIA
Markel Ormazabal-Oier Guillan
Markel Ormazabal eta Oier Guillan preso oihek espetxeko beraien esperientzia oinarri hartuta musikaturako poesia emanaldia eskainiko dute. **Otsailak 27, ostirala, 20:00**



1 POEMA ERREZITALDIA
PAKO ARISTI ('Urari ostutako poemak')
Pako Aristik (Urrestilla, 1963) idatzi duen 'Urari ostutako poemak' (Susa) liburua aurkeztuko du egileak berak. "Hitzekiko mesfidantzaz" idatzitako poemak dira, kultura judeo-kristauak indartu eta zabalduetako ideia, balio eta hitzekiko mesfidantza handiz. **Martxoak 1, igandea, 18:00**





Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Otsailak 5, 13, 14, 15, 23 eta 24,
eta martxoak 4 eta 5.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Otsailak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26,
eta martxoak 6, 7 eta 8.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Otsailak 9, 10, 18, 19, 27 eta 28
eta martxoak 1.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Otsailak 11, 12, 20, 21 eta 22, eta
martxoak 2 eta 3.

Guardiako taxilariak

OTSAILAK 2-8

JUAN JOSE URRA
943 79 71 72 / 606 004 340

OTSAILAK 9 - 15

JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

OTSAILAK 16 - 22

JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

OTS. 23 - MARTXOAK 1

IOSU LERTXUNDI
663 031 322

MARTXOAK 2-8

ANA ORUETA
943 534082 / 650 059 999

OÑATIKO

TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikruz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritzia943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILIAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

OTSAILAK 6
MARTXOAK 13
APIRILAK 17
MAIATZAK 15
EKAINAK 12
ABUZTUAK 10

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

OTSAILAK 24

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
Gorritxitxi (Musika Eskola ondoan)

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbatak 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
artean atera behar dira.

Merkatu Txikia

Garajea salgai edo alokairuan
Ugarkalden. Garaje librea,
18m2. Deitu: 610751 017 / 647
515 257

Pisua alokagai Ugarkalden
(piso libreak); 3 logela,
sukaldea, 2 komun, egongela
eta terraza. Prezioa: 650€. Deitu:
645719884.

Garajea alokatzen da Errekalde
auzoko 17 zenbakian. Deitu:
667957848

San Anton kalean pisu bat
alokatzen da. Deitu
665755779 telefonora.


Oñatin, pisua osatzeko
pertsona bat beharko
genukueen bi langile gara.
Interesaturik egonez gero, deitu
mesedez arratsaldeko
18:00etatik aurrera 653 748
751 zenbakira.

Etxebizitza salgai, Oñatiko
erdigunean. 68m2, bi logela,
komuna, sukaldea eta
egongela. Guztiz hornituta.
Prezioa: 190.000€. Deitu:
659720664

Garajea alokatzen da Errekalde
auzoko 17. portalean. Deitu

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixak



Bujero tabernia botaten

Ondo famaia izan zan, ba, taberna-jatetxe-ostatu hau Oñatin XX. gizaldixaren lehenengo erdialdixan! Etzan hori bere izen ofiziala. **Fonda del Comercio** moduan ezagutu euen gerra aurrian, eta **Bar Restaurante Izarra** lez gerra ostian. Baiña gure aurrekuak eta guk geuk be **Bujero** esaten gotsan. Juanito Zubiaren memorixen liburuan datorren bertsioak hau dixo: taberna horretan eguen joko batian txapa baten iriztuetatik txanponak sartu bihar izaten ziran, hau da, zulo edo “bujeruetatik”; ixa danontzat ezaguna dan “txantxiku-jokuaren” tankerakua ei zan jolas hori. Dana dala, beste bertsio batzuk be entzun izan dittugu.

Bujeron tertulixa eta frittada asko egitten ziran. Sarrittan etxetik eruandako kazuelatxo edo fianbriaren inguruan. Txantxikuar peto ugarik ez ezik kanpotarrak be joten euen hara: gehixenak beheko tabernara; kanpuan, sei postetzarren peian bi zatittan luzaketan zan harrizko bankuan be bezeruak patxadan egoten ziran; aterpe horren gaiñeko pisuan komedore-jangela luzia eguen bazkari eta afari formalaguak egitteko. Gerra aurretik **Hermenegildo Bergarajauregik** eta bere alaba **Danielak** eruan euen negoziua; gerra ondoren, **Faustino Inza Txaiña** eta **Liborio Lizarralde Uztargiñena** izan ziran arduradunak. Euren emazte eta neskamiekin batera, jakiña.

Bi argazki honeik erakusten doskue zelako itxuria eukan **Bujerok** bota baiño lehentxuago eta eresten ziharduain momentuan. Bigarrenian aittatutako aterpe haretatik geraketan zan poste bakarra eta goiko komedoriaren paretako papela ikusi geinke. Fotografixia 1961eko ilbaltzaren 12 xan atarata dago. Lanai begira dagozen lagunetatik bakarra ezagutu dogu: **Karlos Aranburu** aguzilla, Santa Kataliñakua. Zazpibidetako etxe horretara **Banco Vizcaya** aldatu zan Txurrukaneko arkupetatik, eta sigla gehitxuagokin hortxe jarraiketan dau berrogeta hamalau urte geruago be.

J. E.

Eresketia agerketan dauen fotografixia Nikolas Ugartek itzittakua da. Bestia Juanito Zubiaren *Memorias de aquel Oñati* liburutik hartu dogu eta Jose Luis Plazaolak ataratakua izan leike. Milagros eta Rexu Letamendik argibide batzuk emun doskue. Eskerrik asko danoiri.

Summer camps
Udalekuak
 Udaleku irekiak
Colonias
 Colonias abiertas

English

Ordutegia: gozoz 9:00etatik 13:00etara
iraupena: 2 - 4 aste,
Datak: ekainaren 29tik uztailaren 24ra,
 irailaren 1etatik 4ra
Jarduerak: eskulan tailerrak, kirolak, festa eta jokoak.

mondragonLingua

OÑATI
 Motaen, 7
 943 71 60 00
mionati@mondragonlingua.com > Informazioa eskatu

ETXEBIZITZA BERRIAK
OÑATI ERDIAN

Maiatzaren 1 Plaza,
 2. zenbakian

3 logetako
 etxebizitza zabalak

Informazioa eta Salmenta:
Larrain S.L.
Tel.: 943 21 33 88
www.moyua.com

Grupo MOYUA **Larrain**

UDAL KOMUNIKABIDEEN SAREA



Jarrai gaitzazu!

Oñati Irratia | Kontzejupetik | Boletina

Oñatiko Udal komunikabideetan garai berrietara egokitzeko ahaleginean ari gara. Irratia eta Kontzejupetik aldizkariak gain aurrerantzean, albistez osaturiko asteroko boletin elektronikoa bat jaso ahal izango duzu zure posta elektronikoan. Web orrian ere, egunero zintzilikatzen ditugu albisteak eta eskaintza guztia osatzeko, sare sozialetan komunikabide guztiak batzen dituen perfil berria sortu dugu. Jarrai gaitzazu!



Boletina (Egin zaituz harpidedun hemen)

www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/udal-komunikabideak



eskerzartu kodea
eta harpidetu
zaituz
boletineri



Oñati Irratia (FM 107.4 edo www.oñati.eus web orrian)

Egunero bi ordu eta erdiko zuzeneko emanaldiak. 12:00-13:30 eta 19:00-20:00. Errepikapenak 22:00.



Facebook

Berbia Oñati



Twitter

@BerbiaOnati

www.oñati.eus